



**DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA
GIZARTERATZEKO EUSKAL SISTEMAREN LEGEAREN
MEMORIA EKONOMIKOA, EKONOMIA- ETA
ARAUDI-KONTROLERAKO EGINA**



I - OINARRIAK

Ekainaren 30eko 14/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak, 25. artikuluan ezartzen duenaren arabera, eduki ekonomikoa duen araudia jasotzen duten lege-aurreproiektuak eta proiektuak ekonomia eta araudiaren aldetik kontrolatzea nahitaezkoa da horiek onartu aurretik, bai eta dirulaguntza-programak eta horien deialdiak garatzeko ematen diren xedapenak ere.

Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko fiskalizazioa egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/95 Dekretuaren 42. artikuluen arabera, ekonomia- eta arau-kontrola gauzatzeko betebeharraren mende dauden xedapen guztiekin batera, memoria bat aurkeztu behar da oinarrizko dokumentu gisa, eta, gutxienez, honako hauek jaso behar dira bertan:

- a. Xedapena indarrean jartzeak aurrekontuetan eragingo dituen gastuen eta diru-sarreraren kuantifikazioa; arruntak direnak eta kapital-eragiketetatik datozenak bereizi beharko dira, eta gastu edo diru-sarrera horien xedea azaldu beharko da.
- b. Aurrekontu-gastuen finantzaketa, berariaz aipatuta horren eraginpean dauden baliabideak eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorreztik aparte finantzaketa-iturriak.
- c. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiak berezko dituen gaietan eta aurrekontu-araubidean eragina duten xedapeneko alderdien identifikazioa, xedapenaren aurrekarien deskribapena eta xedapenaren beharraren justifikazioa.
- d. Proposatutako xedapena hartzen duen aurrekontu-programa ekonomikoaren deskribapena, arau hori indarrean jartzeak eragingo dien helburuen, egintzen eta adierazleen identifikazioa, eta hura aplikatzeak ekonomian eta gizartean izango dituen eraginaren ebaluazioa.
- e. Programen nahiz lortu nahi diren helburuen gauzatze- eta betetze-mailaren ebaluazioa, dirulaguntza-programak garatzeko emandako arauak direnean, bai eta dirulaguntzen deialdien ebaluazioa ere, deialdi horiek aurreko ekitaldietan onartutakoen jarraipena direnean.

Aurrekontuetan, diruzaintzan edota kontabilitatean eragina duten espedienteei dagokienez, aplikatzen diren arauetan xedatzen denaren arabera egokitzat jotzen diren kontabilitateko agiriak ere aurkeztu beharko dira. Era berean, eskatzen da bidal daitezela proposatzen den erregulazioari indarra ematen dioten ildo nagusiak eta oinarri juridikoak ezagutzeko behar diren datu, txosten eta azterlan guztiak, bai eta txostena egiten laguntzen duten gainerako guztiak ere.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legea 14/1994 Legeak 25. artikuluan eta urriaren 31ko 464/95 Dekretuak 41. artikuluan aipatzen dituzten xedapenetakoa denez gero, honako memoria ekonomikoa egin da Kontrol Ekonomikoko Bulegoak bidezko kontrola egin dezan.

II.- MEMORIA EKONOMIKOA

A) XEDAPENA INDARREAN JARTZEAK AURREKONTUETAN ERAGINGO DITUEN GASTUEN ETA DIRU-SARREREN KUANTIFIKAZIOA, BEREIZITA ZEIN DIREN ARRUNTAK ETA ZEIN DATOZEN KAPITAL-ERAGIKETETATIK, ETA ZEHATUTA ZEIN DEN GASTU EDO DIRU-SARRERA HORIEN XEDEA.

A.1. Gastuak

Arau hau indarrean jartzeak eragingo dituen gastuak honako kontzeptu hauetan finkatzen dira:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zuzenbideko prestazio ekonomikoak.
- Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren zuzenbideko prestazio ekonomikoak, horien arautegian xedatzen denarekin bat etorriz.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzen prestazio ekonomikoak.

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren (hemendik aurrera DSBE) prestazioaren eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (hemendik aurrera BGDS) prestazioaren hileko nominak ordaintzeak eragiten dituen gastuak eta gizarte-larrialdietako laguntzen (hemendik aurrera GLL) prestazioak (gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko egin behar diren gastu espezifikoak –ohikoak zein apartekoak– aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonen ematen zaizkienak) ordaintzeak eragiten dituzten gastuak.

Memoria ekonomiko honetan ez da ezer esaten etxebizitzako prestazio osagarriaz, etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta ordeko prestazio osagarria Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean arautzen baitira.

Nolanahi ere, Etxebizitzaren Legea garatu arte, DSBEren lege berriak araubide iragankorra ezartzen du bigarren xedapen iragankorrean: “Etxebizitzako prestazio osagarriaren araubide iragankorra”.

Harik eta indarrean ipini arte Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea etxebizitzaren legeko okupaziorako eskubide subjektiboari dagokionez eta, modu subsidiarioan, eskubide hori gauzatzeko prestazio ekonomikoen sistema ezartzeari dagokionez garatzen duten erregelamendu-xedapenak, etxebizitzako prestazio osagarria aplikatuko da, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egitekoak izango dira prestazio horiek onartzea, izapidetzea, aldatzea eta azkentzea. Prestazio hau Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak arautzen du II. tituluaren I. kapituluaren 2. atalean.

2. DSBEren prestazioak kudeatzeko erabiltzen diren informazio-sistemak mantentzeko eta eguneratzeko lanek eragiten dituzten gastuak. BGDSren prestazioak kudeatzeko erabiliko diren informazio-sistemak garatzeko eta mantentzeko lanek eragiten dituzten gastuak. Dauden informazio-sistemak lege berria eta bera garatzen duten erregelamenduak indarrean jarri ondoren arautegi berrira egokitzeko, batetik, eta prestazioen kudeaketa hobetzeko informazio-sistemak eraberritzeko egin beharreko gastuak dira. Informazio-sistemak eraberritzeko lanetako batzuen xedea elkarreragingarritasun-zerbitzuen eta ikuskapen-zerbitzuen irisgarritasuna da; izan ere, zerbitzu horiek funtsezkoak dira prestazioen kudeaketa optimizatzeko.

GLLak kudeatzeko aplikazioa arau-esparru berrira egokitzeko lanen gastuak; lan horietan gaur egungo elkarreragingarritasun-zerbitzuak aldatzeko eta garatzeko lanak eta Euskadiko Gizarte-zerbitzuen Informazio Sistema egokitzeko lanak ere sartzen dira. Informazio-sistemak mantentzeko beharrezkoak diren gastuak, gaur egun GLLek kudeatzen dituenak:

bereziki, Eusko Jaurlaritzaren gizarte.eus; eta, oro har, udalen edo erakundeen berezko sistema guztiak. Mantentze-gastuek honakoa jasotzen dute: alde batetik, mantentze-lanak egiteko berezko gastuak (lege berria eta haren erregelamendu-garapenak indarrean jartzen direnetik aurrera sistemak araudi berrira egokitzeko); eta, bestetik, mantentze ebolutiboa eta perfektiboa egiteko gastuak (bereziki azpimagarri izanik elkarreragingarritasun-zerbitzuekin zerikusia dutenak). Izan ere, horiek oinarriak dira bai organo kudeatzaileen arteko koordinaziorako (Lanbide eta Gizarte Zerbitzuak), bai kudeaketa optimizatzeko.

3. Aldaketaren kudeaketarekin lotutako gastuak; bi multzo daude, hartzaileen arabera:
 - a. Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan (hemendik aurrera Lanbide) ari diren profesionalentzako berariazko trebakuntzak eragiten dituen gastuak.
 - b. Honako xede hauetarako egiten diren herritarrentzako kanpainak eragiten dituzten gastuak:
 - i. Egun prestazioa jasotzen dutenen datuak biltzea eta eguneratzea, aurreko prestazioak berehala bihurtu ahal izateko arautegi berriko prestazioetara.
 - ii. Herritarrei azaltzea zein diren arautegi berriko aldaketa nagusiak.
 - iii. GLLak kudeatzeko lanetan eta lege honetan ezartzen diren laneratzeko eta gizarteratzeko zerbitzuak garatzeko lanetan parte hartzen duten eragileentzako berariazko trebakuntza-ekintzak prestatzea eta ematea.
4. Azkenik, BGDSren kudeaketan eta arautegi honetan ezartzen den ikuskapen-funtzioan ariko diren giza baliabide berriei lotutako gastuak. Lanpostu berrien aurreikuspena eta, behar denean, lanpostuen monografiak sortzea edota aldatzea.

A.2. Diru-sarrerak

Ez da diru sarrerarik espero.

B) AURREKONTU-GASTUEN FINANTZAKETA, BERARIAZ ZEHAZTUTA HORREN ERAGINPEAN DAUDEN BALIABIDEAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREZ APARTEKO FINANTZAKETA-ITURRIAK.

B.1. Gastuen finantzaketa

Gizarteratzeko 3121 programaren bidez, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko politika gauzatzeko; bi motatako prestazio ekonomikoak daude: Lanbidek kudeatzen dituen zuzenbideko prestazio ekonomikoak –DSBE eta BGDS– udalek kudeatzen dituzten dirulaguntzak –GLL–.

1. DSBE eta BGDS nominak ordaintzeko aurrekontua finantzatzeko Lanbideri esleitutako 41.3121.06.453.02 partida ekonomikoa, gizarteratzeko programa funtzionalekoa, erabiliko da. GLLak ordaintzeko aurrekontua finantzatzeko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari esleitutako 10.3123.21.42201 partida, gizarte-zerbitzuen programa funtzionalekoa, erabiliko da. Era berean, 2021 urteko GLLak ordaintzeko, 10.1229.21.42201 partida aurreikusten da, zeina 1229 programari dagokiona—alegia, Kobid-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak programa—
2. Informazio-sistemak garatzeko, mantentzeko eta eguneratzeko aurrekontua finantzatzeko Lanbideren arlo informatikoari esleitutako 41.3110.01.63201 partida



ekonomikoa erabiliko da; horren xedea DSBE eta BGDS kudeatzeko sistema prestatzea eta ezartzea da. Eusko Jaurlaritzan GLLen informazio-sistemak hobetzeko esleitutako aurrekontua.

Finantzatzeko, honako bi partidak baliatuko dira: bata, Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari esleitutako partida ekonomikoa (10.3111.03.63201 – Aplikazio informatikoak); eta, bestea, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari esleitutako partida ekonomikoa (10.3123.21.63201 – Aplikazio informatikoak) .Atal honetan ez dira aurreikusten udalen sistema propioetarako gastuak.

3. GLLen berezko informazio-sistemak hobetzeko aurrekontua finantzatzeko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari esleitutako 10.3123.21.63201 partida ekonomikoa (Aplikazio informatikoak) erabiliko da. Aldaketaren kudeaketarako aurrekontua finantzatzeko honako partida hauek erabiliko dira: Lanbideko profesionalen berariazko trebakuntzarako 41.3110.01.16201 partida ekonomikoa, langileen trebakuntzarako eta hobekuntzarako dena; herritarrei informazioa emateko kanpainetarako 41.3110.01.236 partida ekonomikoa, erakunde-komunikazioetarako, publizitaterako eta harreman publikoetarako dena.

GLLen berezko aldaketa kudeatzeko esleitutako aurrekontua finantzatzeko honakoa hartuko da kontuan. Ez da partidarik zehaztu Gizarte-Zerbitzuetako profesionalen prestakuntza espezifikoetarako (izan ere, hasiera batean, Eusko Jaurlaritzako bertako langileek egingo baitute). Herritarrek informatzeko kanpainetarako, berriz, 10.3111.02.236 partida erabiliko da (Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailarena; bideratua dagoena komunikazio instituzionalerako, publizitaterako eta harreman publikoetarako).

4. Langileen gastuen aurrekontua finantzatzeko, DSBE eta BGDS prestazio ekonomikoen kudeaketan, lanpostu berrietan edota dauden monografiak aldatzean, Lanbideri esleitutako 41.3110.01.1 partida ekonomikoa erabiliko da. Ez da zehaztu GLLak ikuskatzeko ahala baliatzeari dagokion gastua. Izan ere, gastu hori zehaztu egingo da erakundeek, Laguntza, Ikuskaritza eta Kontrolerako Urteko Plana adosten eta baloratzen dutenean

B.2. Aurrekontuez kanpoko iturriak eta baliabideak.

Epigrafe honetan ez da aurreikusten inolako eraginik.

B.3. EAEko 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 11ko 1/2021 Legearen seigarren eta zazpigarren xedapen gehigarrietan honako hau ezartzen da:

- diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa, edozein modalitatetan, eta orobat guraso bakarreko bizikidetza-unitateentzako hileko subsidio osagarriarena, 2020ko ekitaldian aplikatutakoa izango da % 1,8 gehituta.
- 2021eko ekitaldian, etxebizitza-alokairurako edo ohiko bisitokirako gastuak estaltzea xede duen etxebizitzako prestazio osagarriaren gehieneko zenbatekoa hilean 250 eurokoa izango da, errentamendu, azpierreantamendu, baterako errentamendu, ostatu-emate edo

logela-alokairuaren modalitateetan, eta ez da gehikuntzarako aukerarik izango inolako gorabehera dela eta.

Bestalde, 2021erako aurrekontuek programa berria sortzea jasotzen dute, 1229 Programari dagokiona-hots, COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak programakoa. Programa honek ezohiko eta premiazko neurriak hartzeko beharrari erantzuten dio. Halaber, neurriok xede dute Euskadiko lurralde-eremuan COVID-19-birusaren hedapena ekiditea; zertarako eta larrialdi-egoerei berehala erantzun ahal izateko. Programa horretan, beraz, GLLek pisu nabaria dute.

C. AURREKARIEN DESKRIBAPENA ETA XEDAPENAREN BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAN ERAGINA DUTEN BEREZKO GAIK AIPATUTA

C.1. Xedapenaren aurrekariak eta xedapenaren beharren justifikazioa

1986. urtean Eusko Jaurlaritzak azterlan bat sustatu zuen Euskadiko pertsona behartsuei buruz. 1987an argitara eman zen *Pobrezia Euskal Autonomia Erkidegoan* izeneko azterlana. Bertan agerian jartzen zen prekaritatearen eta pobreziaaren arazoa. Azterlan hura *Pobreziaaren aurka Borrokatzeko Plan Integralaren* abiaburua izan zen. Plan hartan gutxieneko baliabideak bermatzeko sistema bat ezarri zen lehenengoz.

Ekimen haren ondoren ildo bereko zenbait arau autonomiko eman ziren eta denen ondorioz, 1990. urtean, arlo honetako lehen lege autonomikoa onartu zen: *2/1990 Legea, maiatzaren 3koa, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerena*. 1998. urtean Eusko Legebiltzarrak *Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea* onartu zuen, pertsonaren bazterkeriari nahiz gizarte- edo lan-arloko bazterkeriari aurre egiteko beharrezkoak ziren jarduerak bultzatu eta prestazio ekonomikoak eta gizarte-arloko tresnak arautzeko, eta bizimodu independentea izateko behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez zutenei gizarteratzen laguntzeko. Geroago, sistema progresiboki denengana iristea lortzeko eta gizarte-arloko premiek izandako bilakaerari politika publikoen bidez hobeto erantzungo zitzaiela bermatzeko, *abenduaren 27ko 10/2000 Legea onartu zuen, Gizarte Eskubideen Agiriarena*, eta, horri esker, oinarritzko errenta deiturikoa euskal babes-sisteman txertatu zen.

Oinarritzko errenta horren erregulazioa zenbat aldiz aldatu zen harik eta *Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea* onartu arte. Lege horretan gizarte-bazterketaren eta lan-bazterketaren arriskuen prebentziorako diru-aurreikuspen eta tresna sozial guztiak bildu ziren.

2011. urtean, Lanbidek bere gain hartu behar zuzenez zuzenbideko prestazio ekonomikoen kudeaketa eta gizarteratzeko laguntza eta, batez ere, laneratzeko laguntza jasotzen duten pertsonekin egiten den lana sendotu behar zenez, aldaketa partziala egin zen *18/2008 Legean*. Hain zuzen ere, kudeaketa-eredua aldatu zen, eta emaitza oso onuragarria izan zen, bai Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarako, bai Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemarako. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan, enplegu-politika aktiboak bere gain hartzeak dakarren aldaketa oso garrantzitsua da ereduaren oinarritzko printzipioak ezartzeko. Printzipio horiek estu-estu lotuta daude gizarteratze aktiboko estrategia integralarekin; hots, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko helburua duten neurriez gain, benetako laneratzeari helburu duten beste neurri batzuk dakartzan estrategiarekin.

Azaroaren 24ko 4/2011 Legeak ekarri zuen aldaketa partzialaren ondoren Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak krisiaren ondoriozko egoera sozioekonomikora moldatu beharra aztertu du. 2016ko abenduaren 15ean, *95/2016 Legez* besteko proposamenaren bidez Eusko Legebiltzarrak erabaki zuen abian jartzea arautegia aldatzeko prozesua, diru-sarrerak bermatzeko errentaren

berezko alderdi guztiak optimizatzeko eta egoera berriei aurre egiteko gizarte-kohesiorako tresna modura sendotzeko.

Lege-proposamen honetan berariaz hartzen dira kontuan aurreko legealdian legez besteko proposamen horri erantzuteko egindako lanak, alde batetik, eta COVID-19aren krisiak eta maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera ezartzen duena, indarrean jartzeak eratu duten errealitate berria.

Ez da aurreikusten diru-sarrerarik, zuzenbideko prestazio ekonomikoen titularrek bidegabe jasotako diru-kopuruen itzulketen ondoriozkoak izan ezik. Zuzenbideko prestazio ekonomikoen arautegian ezartzen den bezala, itzultzen diren diru-kopuruak hurrengo hileko prestazioak ordaintzeko erabil daitezke.

Kapitulu honetan zehaztasun bat egin behar da BGDSri buruz. Ekonomia Itunaren esparruan prestazio hau transferitzeak Euskadik Estatuari ordaindu beharreko Kupoa doitu beharra ekarriko du eta hori, funtsean, diru-sarrera izango litzateke. Horien zenbatekoa finkatzea oso zaila da, kontuan harturik zertan diren prestazioaren garapena eta izapideak Euskadin. Nolanahi ere, zenbatespena egin daiteke eta esan daiteke bi kopuru hauen artekoa izan litekeela: 113 milioi euro inguru, BGDSen prestazioa 20.000 pertsonak jaso lezaketela kontuan hartuta, eta 187 milioi euro, Estatuan prestazio honetarako 2021ean ezarritako aurrekontuari (3.000 milioi euro) % 6,24 aplikatuta.

Gainera, administrazio publikoak, Lanbide tartean dela, digitalizatzeko prozesuan ari gara, eta horri esker eskubide honen erregulazioa modernizatzeko aukera egongo da, bai edukiak, bai kudeaketa.

XII. legealdirako 2020-2024 gobernu-programaren arabera, COVID-19aren eraginez gora egin dute pobrezia, bazterketak eta arrisku-kasuek, eta gutxitu erabilgarri dauden baliabide publikoak. Egoera konplexu honetan, erakunde publikoek ahaleginak egin behar dituzte inor atzean ez gelditzeko eta gizartea bateratuta mantentzeko. Ez dago ahalegin horietan jardutea baino inbertsio hoberik. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak uste du zerbitzu publikoak bermatu behar direla eta irmo jokatu behar dela politika sozialen eta egoera larrian dauden herritarrekiko elkartasunaren alde, denon artean krisi honetatik irten ahal izateko inor atzean utzi gabe, aurrean esan den bezala.

Helburu hori lortuko bada, ezinbestekoa da diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eraberritzea, bai eta hezkuntza-komunitatearekin batera hezkuntza egokitzea eta hobetzea, etxebizitzarako eskubidea zabaltzea eta eremu guztietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egitea ere.

Horrenbestez, gobernu-programan ezarritako konpromisoetako bat da diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea, bazterketaren kontra borrokatzeko, eta horretarako lau ekimen ezartzen ditu:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eredua sendotzea, kontuan hartuz bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) berria.
- Errenta honen unibertsalizazioa lantzea, gaur egun oraindik behar bezalako arreta ematen ez zaien biztanle-segmentu batzuetara heltzeko, eta arreta berezia ematea seme-alabak dauden familia behartsuei.
- Kudeaketa hobetzea, izapideak azkarrago egiteko eta prestazioak eta laguntza ekonomikoak hobeto kontrolatzeko.
- Pizgarriak ematea jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonetatik enplegarriak direnak gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko.

Lege-proiektuaren oinarrien dokumentuan helburu horiek lortzea xede harturik Diru-sarrerak bermatu eta gizarteratzeko 18/2008 Legearen erreforman aplikatuko diren funtsezko gidalerroak ezartzen dira. Dokumentu horretan diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren funtsezko elementuak biltzen dira —bai ikuspegi kontzeptual eta filosofikotik, bai ereduaren kudeaketaren ikuspegitik—, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak zabaldu nahi dituenak.

Oinarrien dokumentua egiteko lagungarri nagusia 2018. urtean Eusko Legebiltzarrean diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko lege-proposamena aurkezteko egindako lana izan da. Izan ere, erreforma-prozesu hartan egin ziren dokumentu teknikoetan agertzen ziren irizpideak, argudioak eta proposamenak bildu dira. Hain zuzen ere, oinarrien dokumentuan hauetatik zuzenean hartutako elementuak biltzen dira:

- DSBE eraberritzeko batzorde teknikoak egindako txostena; 2016ko miaztean aurkeztu zitzaion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari;
- DSBE eraberritzeko oinarrien dokumentua, Sailak berak egina 2017ko maiatzaren.

Oinarrien dokumentuan —eta haren ondoriozko arau-testuaren proposamenean— aurreko lege-proposamenaren inguruko aldaketa garrantzitsu batzuk ere biltzen dira. Aldaketa horiek honako arrazoi hauengatik egin dira batik bat:

- Batetik, COVID-19aren pandemiak egoera sozioekonomiko berria ekarri du, eragin handia izan du sare produktiboan eta ondorioz herritarren beharrian ekonomikoak gehitu dira eta euskal herritar gehiagok jasaten dute bazterketa sozialean gelditzeko arriskua.
- Bestetik, iaz, urte amaieran, Espainiako Parlamentuak bizitzeko gutxieneko diru-sarrera onartu zuen. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuak berak adierazten duen bezala, prestazio horren sorrerako helburu nagusia da, gutxieneko baldintza materialak betez, bermatzea herritar guztiek bizitza sozialean eta ekonomikoan bete-betean parte har dezaten, eta, horretarako hautsi egiten ditu egiturazko baliabiderik ezaren eta pertsonen lan-, hezkuntza- edo gizarte-esparruetan aukerarik ez izatearen arteko lotura. Lege horren bosgarren xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera, foru ogasunak izateak dakarren espezifikotasuna dela eta, foru araubideko autonomia erkidegoek beren gain hartuko dituzte, beren lurralde-eremuari dagokionez, prestazio hau kudeatzeko eginkizunak eta zerbitzuak. Horrek eragina edukiko du ezinbestean diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren definizioan, irismenean, kudeaketan eta finantzaketan, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera sistema horretako osagaia izango baita.
- Azkenik, aurreko lege-proposamena aztertzeke eta hartaz hitz egiteko Eusko Legebiltzarrean egin ziren agerraldietan eta eztabaidetan zenbait hobekuntza identifikatu ziren, eta orain aurkezten den testuan sartu dira.

Esan den bezala, oinarrien dokumentuan Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea eraberritzeko indarreko proposamenaren arau-testua egiteko kontuan hartu diren oinarriak biltzen dira. Dokumentu honek arau-testu berriaren oinarrizko elementuak laburbiltzen ditu; horrez gainera, proposatutako elementu berriak testuinguruan jartzen eta justifikatu egiten ditu, abiaburutzat harturik, ia kasu guztietan, aurreko erreforma-prozesuan ezarritako printzipioak eta irizpideak. Nolanahi ere, ez da testu juridikoa, baizik eta testu programatikoa; beraren helburua da aurkeztutako proposamenaren oinarrizko elementuen berri ematea, eztabaida soziala, teknikoa eta politikoa errazteko asmoarekin.

Gainera, aipatu beharrekoa da ezen, oinarrien dokumentuan aipatzen diren elementu gehienak legearen aurreproiektuaren testuan sartuko badira ere, beste batzuk hurrengo fase batean



txertatuko direla diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren arautegian, legearen araugintza-prozesuan zehar.

Horrenbestez, erreforma honen helburu objektibo nagusiak, ondorio ekonomikoak izango dituztenak, honako hauek dira:

- Diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua egokitzea bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) Estatu Espainol osoan aplikatzeko eta EAEko Administrazioak prestazio hori kudeatzeko eskumena erabiltzeko bidea zabaltzea.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemak pobrezia ekonomikoa prebenitzeko eta murrizteko daukan gaitasuna hobetzea, hain zuzen ere sistemaren estaldura zabaltzea eta bermatutako zenbatekoak gehitzea, batez ere gaur egungo ereduak pobrezia larria murrizteko arrakastarik izan ez duen kasuetan (hiru kide edo gehiagoko familiak edota adingabeak dauden familiak).
- Gaur egun egoki babesten ez diren beharrei eta kolektiboei emandako arreta hobetzea, denek eduki ditzaten sistema erabiltzeko aukera berak.
- Diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren ikuspegi familiar eta haurren aldekoa sakontzea eta, horren ildotik, haurren pobreziaren kontra eta bazterketa soziala belaunaldi batetik bestera pasatzearen kontra egiteko ahala sendotzea.
- Bizikidetza-unitatearen kontzeptua argitzea, bermatzeko etxebizitza berean bizi diren bizikidetza-unitate guztiek jaso ditzaketela prestazioak, eta mekanismo egokiak ezartzea kontuan edukitzeko etxebizitza batean zenbait familia-unitate bizi direnean sortzen diren eskalako ekonomiak eta sustatzeko familia-loturarik ez duten pertsonak elkarrekin bizitzea pertsona anitzeko unitateak eratuta.
- Prestazio ekonomikoen kudeaketa normalizatzea, erraztea eta azkartzea —bai erabiltzaileen ikuspegitik, bai administrazio kudeatzailearen aldetik—, eta argitzea zer eskubide eta betebeharrak dauzkaten onuradunek Administrazioarekiko harremanetan. Horretarako, proposatzen da lege honetan zenbait mekanismo eta berme ezartzea honako bi helburu hauek lortzeko: batetik, kudeaketa azkarragoa eta malguagoa izatea; bestetik, sistema erabiltzen duten pertsonen segurtasun juridiko handiagoa edukitzea eta, aldi berean, identifikaziorako eta kontrolerako tresnak hobetzea.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren eskubide bikoitzaren printzipioa aplikatuz, bazterketa jasaten duten edo jasateko arriskuan dauden pertsonen zerbitzu eta programa egokiak eskaintzea gizarteratzeko eta laneratzeko, batez ere gizarte-zerbitzuekin eta enplegu-zerbitzuekin koordinatuta jardunez. Horren ildotik, xede hauek ditugu:
 - Eskubide bikoitzaren kontzeptuan sakontzea, eta sendotzea bai enplegu-zerbitzuek laneratzen laguntzeko egiten duten lana, bai gizarte-zerbitzuek gizarteratzen laguntzeko egiten dutena, biak ere beharrezkoak baitira DSBE jasotzen duten pertsonen lan-aktibaziorako.
 - DSBE jasotzen duten pertsonen laneratzea bultzatzea, bazterketaren aurkako borrokan euskal enpresen inplikazioa eta ekonomia solidarioa bultzatuz.
 - Enplegua saritzeko egiturazko sistema bat finkatzea, pobreziaren tranpa saihesteko eta enpleguko pobreziari erantzuteko.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko sistemaren gobernantza hobetzea: administrazioak koordinatzeko tresnak hobetzea; hirugarren sektore sozialak parte hartzeko aukerak ematea, eta argitzea zein diren administrazio-maila bakoitzaren egitekoak —prestazio ekonomikoak kudeatzeaz gainera— kontuan hartuta prestazioak jasotzen dituzten pertsonen zer aukera dituzten gizarte-zerbitzuen, enpleguaren, osasunaren eta etxebizitzaren arloetako zerbitzuak eta laguntzak erabiltzeko.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko politikak finkatzea, gaur egun egiten diren ikerketa, berrikuntza, ebaluazio, hedapen, analisi eta prestakuntzako jarduerak

egonkortzeko, arautzeko eta bultzatzeko mekanismoak indartuta, esparru horretako I+G+b arloko estrategia zabalago baten barruan.

C.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaitan eta aurrekontu-araubidean eragina duten xedapeneko alderdien identifikazioa


DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN (DSBE) ETA BIZITZEKO GUTXIENEN DIRU-SARRERAREN (BGDS) HILEKO NOMINAK ORDAINTZEA

C.2.1. DSBE. Hileko nomina ordaintzea

Jarraian legegintzako proposamen berriak edukiko dituen ondorio ekonomikoak beren testuinguruan jarriko dira; horretarako, DSBEren nominaren kontzeptu eta aldagarri nagusiak aztertuko dira.

Grafika 1. 2015 -2021 (apirila) hileko nomina osatzen duten espedienteen bilakaera


Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	65,869	64,675	63,317	59,914	54,850	52,343	54,816
OTS	66,072	65,218	63,382	59,206	54,584	52,240	55,666
MAR	66,309	65,270	63,280	58,686	54,883	52,391	55,030
API	66,332	65,506	63,146	58,305	54,207	53,274	54,145
MAI	66,373	65,657	62,924	58,086	53,901	54,066	
EKA	66,281	65,491	62,760	57,917	53,702	54,039	
UZT	65,824	65,181	62,282	57,377	53,384	54,010	
ABU	65,040	64,391	61,314	56,800	52,937	53,950	
IRA	64,884	64,281	60,883	56,431	52,556	53,933	
URR	64,593	64,137	60,593	56,030	52,373	54,076	
AZA	64,635	63,983	60,594	55,605	52,347	54,408	
ABE	64,726	63,797	60,405	55,380	52,455	54,747	





Grafika 2. 2015 -2021 (apirila) hileko nominaren zenbatekoaren bilakaera

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	33,219,680	33,121,500	32,460,647	31,218,503	28,669,598	29,990,168	31,873,739
OTS	33,720,071	34,666,395	32,245,312	31,037,273	28,623,101	29,941,480	33,412,111
MAR	33,778,916	34,491,767	32,171,681	30,552,387	31,783,969	29,960,565	33,027,095
API	33,708,890	34,353,114	33,996,820	30,259,946	29,638,024	30,680,975	32,038,841
MAI	33,895,431	34,315,641	32,521,122	30,292,220	29,204,421	31,058,054	
EKA	33,768,052	33,770,135	32,253,612	30,092,352	28,940,708	31,287,588	
UZT	33,297,408	33,211,466	31,546,947	29,596,638	28,690,006	31,426,884	
ABU	32,690,568	32,505,186	30,732,710	29,081,722	28,116,044	31,393,410	
IRA	32,713,341	32,601,622	30,659,268	29,014,816	28,064,905	31,537,282	
URR	33,092,660	32,906,305	31,122,222	29,388,214	28,378,991	31,938,389	
AZA	32,984,718	33,064,168	31,158,009	28,885,680	28,242,742	32,151,974	
ABE	32,880,800	32,389,791	30,842,037	28,473,661	28,357,038	32,070,504	





Grafika 3. 2015 -2021 (apirila) sexuaren araberako titularren bilakaera

Gizonezkoak

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	28,100	28,067	27,590	25,611	23,142	21,739	22,843
OTS	28,216	28,385	27,578	25,179	22,997	21,683	23,227
MAR	28,392	28,432	27,470	24,900	23,117	21,752	22,921
API	28,437	28,629	27,233	24,686	22,839	22,122	22,833
MAI	28,457	28,744	27,222	24,631	22,697	22,483	
EKA	28,407	28,687	27,114	24,545	22,529	22,457	
UZT	28,242	28,485	26,891	24,264	22,323	22,496	
ABU	27,907	28,100	26,410	24,022	22,170	22,542	
IRA	27,918	28,100	26,240	23,846	21,958	22,475	
URR	27,941	27,990	26,110	23,715	21,854	22,519	
AZA	27,928	27,961	26,036	23,505	21,818	22,729	
ABE	27,991	27,844	25,917	23,371	21,831	22,849	

Emakumezkoak

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	37,766	36,607	35,726	34,303	31,708	30,604	31,973
OTS	37,853	36,832	35,804	34,027	31,587	30,557	32,437
MAR	37,914	36,837	35,810	33,786	31,766	30,639	32,107
API	37,891	36,876	35,825	33,618	31,368	31,152	31,310
MAI	37,914	36,912	35,701	33,455	31,204	31,583	
EKA	37,873	36,802	35,644	33,372	31,173	31,582	
UZT	37,582	36,696	35,389	33,113	31,061	31,514	
ABU	37,133	36,288	34,902	32,778	30,767	31,408	
IRA	36,966	36,178	34,642	32,585	30,598	31,458	
URR	36,652	36,145	34,483	32,315	30,519	31,557	
AZA	36,704	36,020	34,558	32,100	30,529	31,679	
ABE	36,733	35,951	34,488	32,009	30,624	31,898	







Grafika 4. 2015 -2021 (apirila) hileko nominaren bilakaera sexuaren arabera

Gizonezkoak

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	15,279,005	15,279,005	14,974,195	14,039,600	12,541,295	12,631,067	13,323,136
OTS	16,044,364	16,044,364	14,780,894	13,815,367	12,503,034	12,615,284	13,930,798
MAR	15,904,211	15,904,211	14,740,426	13,634,251	13,688,233	12,624,874	13,795,337
API	15,911,483	15,911,483	15,434,089	13,437,969	12,833,323	12,854,872	13,522,811
MAI	15,883,845	15,883,845	14,870,298	13,451,226	12,600,804	12,993,767	
EKA	15,646,475	15,646,475	14,648,083	13,280,983	12,379,709	13,159,472	
UZT	15,323,236	15,323,236	14,368,577	13,133,640	12,274,247	13,228,305	
ABU	14,999,535	14,999,535	13,951,025	12,838,271	11,986,788	13,198,949	
IRA	15,119,655	15,119,655	13,960,152	12,813,339	11,947,459	13,215,520	
URR	15,209,779	15,209,779	14,172,457	12,936,588	12,076,025	13,410,920	
AZA	15,306,846	15,306,846	14,104,027	12,624,783	11,981,035	13,551,667	
ABE	14,946,894	14,946,894	13,941,657	12,465,377	11,992,985	13,469,568	

Emakumezkoak

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	18,408,411	17,841,873	17,485,826	17,178,902	16,128,303	17,359,100	18,550,603
OTS	18,633,333	18,621,232	17,464,418	17,221,906	16,120,068	17,326,196	19,479,815
MAR	18,666,000	18,586,698	17,431,255	16,918,137	18,095,735	17,335,691	19,230,404
API	18,601,331	18,440,772	18,508,275	16,820,693	16,804,701	17,826,103	18,514,676
MAI	18,783,206	18,430,938	17,649,920	16,840,995	16,603,616	18,064,287	
EKA	18,739,901	18,122,176	17,603,839	16,811,369	16,560,998	18,128,116	
UZT	18,401,036	17,888,230	17,176,710	16,462,998	16,415,759	18,198,579	
ABU	17,754,162	17,503,598	16,780,013	16,243,450	16,129,256	18,194,461	
IRA	17,678,064	17,478,518	16,698,168	16,201,477	16,117,446	18,321,762	
URR	17,851,170	17,695,042	16,949,766	16,451,627	16,302,966	18,527,470	
AZA	17,926,543	17,755,837	17,053,983	16,260,898	16,261,707	18,600,307	
ABE	17,812,553	17,441,413	16,900,380	16,008,284	16,364,053	18,600,936	





Grafika 5. 2015 -2021 (apirila) titularren bilakaera tratu txarren adierazlearen arabera

Tratu txarren adierazlerik gabe

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	65.008	63.708	62.200	58.771	53.641	51.016	53.298
OTS	65.191	64.215	62.261	58.060	53.347	50.874	54.100
MAR	65.421	64.251	62.161	57.549	53.624	51.000	53.476
API	65.431	64.468	62.019	57.171	52.965	51.840	52.630
MAI	65.452	64.612	61.778	56.937	52.655	52.602	
EKA	65.365	64.442	61.616	56.735	52.446	52.584	
UZT	64.884	64.128	61.157	56.209	52.118	52.545	
ABU	64.112	63.343	60.201	55.631	51.702	52.472	
IRA	63.950	63.213	59.777	55.260	51.308	52.458	
URR	63.669	63.047	59.470	54.846	51.114	52.589	
AZA	63.711	62.889	59.452	54.408	51.071	52.886	
ABE	63.777	62.689	59.256	54.182	51.148	53.227	

Tratu txarren adierazlearekin

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	861	967	1.117	1.143	1.209	1.327	1.518
OTS	881	1.003	1.121	1.146	1.237	1.366	1.566
MAR	888	1.019	1.119	1.137	1.259	1.391	1.554
API	901	1.038	1.127	1.134	1.242	1.434	1.515
MAI	921	1.045	1.146	1.149	1.246	1.464	
EKA	916	1.049	1.144	1.182	1.256	1.455	
UZT	940	1.053	1.125	1.168	1.266	1.465	
ABU	928	1.047	1.113	1.169	1.235	1.478	
IRA	934	1.067	1.106	1.171	1.248	1.475	
URR	924	1.090	1.123	1.184	1.259	1.487	
AZA	924	1.094	1.142	1.197	1.276	1.522	
ABE	949	1.108	1.149	1.198	1.307	1.520	







Grafika 6. 2015 -2021 (apirila) hileko nominaren bilakaera tratu txarren adierazlearen arabera

Tratu txarren adierazlerik gabe

Hilabete	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	33.081.638	32.473.750	31.725.940	30.471.459	27.854.352	29.050.525	30.742.654
OTS	33.503.327	33.962.920	31.524.352	30.273.082	27.805.485	28.947.939	32.251.498
MAR	33.608.384	33.800.264	31.447.876	29.812.003	30.900.429	28.974.173	31.866.401
API	33.565.814	33.652.723	33.246.800	29.523.514	28.810.907	29.642.696	30.917.116
MAI	33.765.705	33.625.884	31.773.487	29.529.420	28.368.966	30.018.085	
EKA	33.686.140	33.087.187	31.510.820	29.317.550	28.093.014	30.252.838	
UZT	33.181.868	32.522.966	30.839.011	28.855.245	27.850.778	30.376.514	
ABU	32.093.566	31.828.039	30.022.354	28.349.845	27.314.100	30.349.459	
IRA	32.094.362	31.892.206	29.959.041	28.270.028	27.232.545	30.500.947	
URR	32.460.144	32.191.150	30.401.649	28.594.419	27.530.284	30.873.276	
AZA	32.372.415	32.332.655	30.401.130	28.090.684	27.381.982	31.034.928	
ABE	32.253.095	31.674.802	30.107.828	27.704.730	27.482.378	30.982.447	

Tratu txarren adierazlearekin

Hilabete	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	580.275	647.750	734.707	747.043	815.246	939.643	1.131.085
OTS	607.049	703.475	720.960	764.191	817.617	993.541	1.160.613
MAR	606.048	691.503	723.806	740.384	883.540	986.392	1.160.694
API	615.761	700.392	750.020	736.432	827.117	1.038.279	1.121.726
MAI	640.947	689.758	747.635	762.800	835.455	1.039.969	
EKA	632.910	682.948	742.792	774.802	847.694	1.034.750	
UZT	636.473	688.500	707.936	741.393	839.229	1.050.369	
ABU	597.002	676.577	710.355	731.877	801.944	1.043.951	
IRA	618.979	707.452	700.227	744.788	832.360	1.036.336	
URR	632.516	715.155	720.574	793.795	848.707	1.065.113	
AZA	612.303	731.512	756.880	794.996	860.760	1.117.046	
ABE	627.704	714.989	734.209	768.931	874.660	1.088.057	





Grafika 7. 2015 -2021 (apirila) gurasobakarreko gehigarria duten espdianteen bilakaera

Gurasobakarreko gehigarriarekin

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	9.594	9.592	9.689	9.281	8.823	8.748	9.285
OTS	9.664	9.720	9.765	9.189	9.331	8.761	9.272
MAR	9.725	9.769	9.773	9.140	8.763	8.803	9.331
API	9.766	9.853	9.782	9.140	8.896	9.031	8.763
MAI	9.840	9.946	9.747	9.076	8.841	9.194	
EKA	9.863	9.927	9.750	9.128	8.855	9.198	
UZT	9.818	9.909	9.636	9.038	8.837	9.160	
ABU	9.585	9.785	9.455	8.945	8.741	9.078	
IRA	9.582	9.758	9.365	8.889	8.703	9.071	
URR	9.516	9.758	9.305	8.872	8.677	9.161	
AZA	9.607	9.753	9.354	8.861	8.676	9.192	
ABE	9.655	9.748	9.338	8.888	8.737	9.270	

Gurasobakarreko gehigarriarekin gabe

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	56.275	55.083	53.628	50.633	46.027	43.595	45.531
OTS	56.408	55.498	53.617	50.017	45.253	43.479	46.394
MAR	56.584	55.501	53.507	49.546	46.120	43.588	45.699
API	56.566	55.653	53.364	49.165	45.311	44.243	45.382
MAI	56.533	55.711	53.177	49.010	45.060	44.872	
EKA	56.418	55.564	53.010	48.789	44.847	44.841	
UZT	56.006	55.272	52.646	48.339	44.547	44.850	
ABU	55.455	54.606	51.859	47.855	44.196	44.872	
IRA	55.302	54.523	51.518	47.542	43.853	44.862	
URR	55.077	54.379	51.288	47.158	43.696	44.915	
AZA	55.028	54.230	51.240	46.744	43.671	45.216	
ABE	55.071	54.049	51.067	46.492	43.718	45.477	






Grafika 8. 2015 -2021 (apirila) hileko nominaren bilakaera gurasobakarreko gehigarriaren arabera


Gurasobakarreko gehigarriarekin

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	6.590.362	6.433.642	6.576.396	6.334.598	6.101.307	6.547.509	7.008.907
OTS	6.666.726	6.842.507	6.586.696	6.400.698	6.080.882	6.583.082	7.315.246
MAR	6.725.652	6.813.274	6.536.779	6.263.707	6.727.568	6.555.318	7.246.890
API	6.675.845	6.825.113	6.844.708	6.222.463	6.354.619	6.766.222	6.815.119
MAI	6.821.751	6.856.871	6.649.090	6.249.635	6.239.740	6.843.877	
EKA	6.789.481	6.730.321	6.578.828	6.248.350	6.248.535	6.849.652	
UZT	6.689.629	6.596.491	6.404.418	6.100.037	6.181.239	6.847.844	
ABU	6.385.618	6.464.361	6.238.257	6.050.349	6.076.177	6.838.678	
IRA	6.381.480	6.486.956	6.237.541	6.027.896	6.040.094	6.890.796	
URR	6.498.310	6.531.361	6.332.375	6.100.637	6.134.760	6.979.806	
AZA	6.546.094	6.650.348	6.412.497	6.117.423	6.096.986	6.983.319	
ABE	6.482.490	6.519.812	6.304.760	6.026.083	6.197.781	6.969.083	



Gurasobakarreko gehigarriarik gabe


Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	26.629.317	26.687.858	25.884.251	24.883.905	22.568.291	23.442.659	24.864.832
OTS	27.053.345	27.823.888	25.658.616	24.636.575	22.542.219	23.358.397	26.096.865
MAR	27.053.264	27.678.493	25.634.902	24.288.680	25.056.401	23.405.247	25.780.206
API	27.033.045	27.528.001	27.152.112	24.037.483	23.283.405	23.914.753	25.223.722
MAI	27.073.680	27.458.770	25.872.032	24.042.585	22.964.681	24.214.177	
EKA	26.978.570	27.039.814	25.674.785	23.844.001	22.692.172	24.437.936	
UZT	26.607.779	26.614.976	25.142.529	23.496.600	22.508.767	24.579.040	
ABU	26.304.950	26.040.826	24.494.453	23.031.372	22.039.867	24.554.732	
IRA	26.331.860	26.114.666	24.421.727	22.986.920	22.024.810	24.646.486	
URR	26.594.349	26.374.944	24.789.848	23.287.577	22.244.231	24.958.583	
AZA	26.438.623	26.413.820	24.745.512	22.768.257	22.145.756	25.168.655	
ABE	26.398.310	25.869.979	24.537.277	22.447.577	22.159.257	25.101.420	



Grafika 9. 2015 -2021 (abril) titularren bilakaera pentsiodun egoeraren arera


Pentsiodunak

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	16.959	16.228	15.799	15.390	14.101	13.425	12.927
OTS	16.926	16.343	15.730	15.279	13.936	13.389	13.027
MAR	16.882	16.161	15.733	15.150	13.721	13.382	12.870
API	16.775	16.115	15.706	15.059	13.552	13.477	12.824
MAI	16.699	16.009	15.637	14.982	13.584	13.452	
EKA	16.646	16.034	15.630	14.920	13.574	13.356	
UZT	16.568	16.016	15.622	14.869	13.523	13.233	
ABU	16.480	15.975	15.553	14.784	13.494	13.114	
IRA	16.458	15.931	15.571	14.733	13.457	12.986	
URR	16.334	15.893	15.550	14.395	13.476	12.972	
AZA	16.302	15.844	15.546	14.300	13.419	12.944	
ABE	16.275	15.817	15.498	14.237	13.421	12.941	



Ez Pentsiodunak

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	48.910	48.447	47.518	44.524	40.749	38.918	41.889
OTS	49.146	48.875	47.652	43.927	40.648	38.851	42.639
MAR	49.427	49.109	47.547	43.536	41.162	39.009	42.160
API	49.557	49.391	47.440	43.246	40.655	39.797	41.321
MAI	49.674	49.648	47.287	43.104	40.317	40.614	
EKA	49.635	49.457	47.130	42.997	40.128	40.683	
UZT	49.256	49.165	46.660	42.508	39.861	40.777	
ABU	48.560	48.416	45.761	42.016	39.443	40.836	
IRA	48.426	48.350	45.312	41.698	39.099	40.947	
URR	48.259	48.244	45.043	41.635	38.897	41.104	
AZA	48.333	48.139	45.048	41.305	38.928	41.464	
ABE	48.451	47.980	44.907	41.143	39.034	41.806	






Grafika 10. 2015 -2021 (abril) hileko nominaren bilakaera pentsiodun egoeraren arabera


Pentsiodunak

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	3.302.021	3.276.925	3.137.675	3.423.953	3.160.151	3.859.888	3.664.435
OTS	3.343.182	3.274.746	3.113.113	3.397.153	3.157.377	3.792.733	4.015.952
MAR	3.320.429	3.252.766	3.138.158	3.378.441	3.860.550	3.806.627	3.843.644
API	3.314.534	3.272.096	3.697.217	3.360.496	3.406.020	3.826.409	3.828.201
MAI	3.287.831	3.197.652	3.307.803	3.365.679	3.399.870	3.787.688	
EKA	3.288.290	3.179.242	3.305.737	3.360.673	3.410.930	3.803.053	
UZT	3.274.005	3.183.619	3.277.489	3.364.533	3.391.561	3.791.237	
ABU	3.182.876	3.154.797	3.244.929	3.323.315	3.365.575	3.747.365	
IRA	3.181.445	3.128.667	3.260.891	3.330.936	3.388.600	3.762.051	
URR	3.225.471	3.159.686	3.280.815	3.168.994	3.435.604	3.733.330	
AZA	3.209.934	3.158.228	3.288.822	3.156.848	3.406.248	3.759.166	
ABE	3.201.775	3.112.905	3.268.660	3.139.434	3.402.239	3.733.125	



Ez Pentsiodunak


Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	30.359.891	29.844.575	29.322.971	27.794.549	25.509.448	26.130.280	28.209.304
OTS	30.767.194	31.391.650	29.132.199	27.640.119	25.465.724	26.148.746	29.396.159
MAR	30.894.003	31.239.001	29.033.524	27.173.947	27.923.419	26.153.938	29.183.452
API	30.867.041	31.081.018	30.299.603	26.899.449	26.232.003	26.854.566	28.210.640
MAI	31.118.821	31.117.989	29.213.319	26.926.541	25.804.551	27.270.366	
EKA	31.030.759	30.590.893	28.947.875	26.731.678	25.529.777	27.484.535	
UZT	30.544.335	30.027.847	28.269.457	26.232.105	25.298.446	27.635.647	
ABU	29.507.692	29.349.820	27.487.781	25.758.407	24.750.470	27.646.045	
IRA	29.531.895	29.470.990	27.398.377	25.683.880	24.676.305	27.775.232	
URR	29.867.189	29.746.618	27.841.407	26.219.220	24.943.387	28.205.060	
AZA	29.774.784	29.905.940	27.869.187	25.728.832	24.836.494	28.392.808	
ABE	29.679.025	29.276.887	27.573.378	25.334.227	24.954.799	28.337.379	



Grafika 11. 2015 -2021 (apirila) hileko nominaren bilakaera tratu txarren desgaitasunaren arabera


Desgaitasunarekin >= 33%

Mes	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
ENE	4.293	4.484	4.718	4.643	4.487	4.497	4.517
FEB	4.323	4.517	4.737	4.610	4.488	4.510	4.555
MAR	4.352	4.541	4.743	4.582	4.539	4.506	4.484
ABR	4.369	4.617	4.735	4.578	4.507	4.551	4.447
MAY	4.384	4.658	4.729	4.587	4.532	4.580	
JUN	4.415	4.651	4.720	4.592	4.565	4.552	
JUL	4.428	4.647	4.718	4.592	4.522	4.518	
AGO	4.408	4.663	4.663	4.560	4.498	4.484	
SEP	4.421	4.648	4.647	4.562	4.493	4.475	
OCT	4.399	4.669	4.635	4.545	4.493	4.488	
NOV	4.410	4.683	4.647	4.535	4.497	4.498	
DIC	4.452	4.683	4.669	4.524	4.494	4.508	



Desgaitasunik gabe

Mes	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
ENE	61.576	60.191	58.599	55.271	50.363	47.846	50.299
FEB	61.749	60.701	58.645	54.596	50.096	47.730	51.111
MAR	61.957	60.729	58.537	54.104	50.344	47.885	50.546
ABR	61.963	60.889	58.411	53.727	49.700	48.723	49.698
MAY	61.989	60.999	58.195	53.499	49.369	49.486	
JUN	61.866	60.840	58.040	53.325	49.137	49.487	
JUL	61.396	60.534	57.564	52.785	48.862	49.492	
AGO	60.632	59.727	56.651	52.240	48.439	49.466	
SEP	60.463	59.632	56.236	51.869	48.063	49.458	
OCT	60.194	59.468	55.958	51.485	47.880	49.588	
NOV	60.225	59.300	55.947	51.070	47.850	49.910	
DIC	60.274	59.114	55.736	50.856	47.961	50.239	






Grafika 12. 2015 -2021 (apirila) hileko nominaren bilakaera desgaitasunaren arabera


Desgaitasunarekin >= 33%

Mes	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
ENE	8.811.231	9.436.005	8.958.914	8.412.771	6.400.839	8.277.004	6.365.829
FEB	10.238.285	9.027.846	7.763.938	7.104.218	6.682.548	8.189.566	6.797.557
MAR	8.499.337	8.320.622	8.243.634	7.656.353	8.191.666	7.358.501	6.689.684
ABR	11.227.824	9.912.544	9.180.524	7.264.450	6.774.071	7.363.634	6.371.159
MAY	10.910.658	8.598.895	8.019.121	8.135.410	7.014.218	7.826.494	
JUN	9.284.743	8.191.278	7.409.352	11.750.371	6.710.692	6.877.067	
JUL	9.706.071	9.650.387	7.022.142	10.666.210	6.479.806	7.745.773	
AGO	8.296.168	8.620.177	7.274.088	7.706.683	6.134.029	15.388.983	
SEP	7.723.161	8.575.315	9.244.604	6.519.659	6.577.371	6.873.406	
OCT	8.486.124	8.528.901	8.324.950	6.724.890	10.162.976	7.099.381	
NOV	9.415.649	7.827.660	8.852.239	7.258.729	6.165.328	8.354.301	
DIC	8.096.464	7.529.838	7.466.744	6.287.842	6.512.671	9.885.246	




Desgaitasunik gabe

Mes	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
ENE	331.186.940	302.657.849	329.610.103	317.410.822	330.791.566	349.164.906	377.982.420
FEB	315.607.520	372.811.622	332.793.772	330.517.276	328.511.629	384.689.789	396.972.481
MAR	331.049.523	362.416.851	313.965.799	314.353.351	342.340.948	383.892.618	405.437.156
ABR	307.930.070	349.336.631	317.141.469	312.789.993	334.112.405	381.696.470	371.571.043
MAY	339.280.885	353.297.555	338.093.488	312.235.459	311.965.408	365.793.805	
JUN	325.093.026	333.856.024	307.137.542	307.608.218	306.251.349	353.225.979	
JUL	306.940.202	299.690.092	298.145.890	287.856.442	306.755.670	350.339.066	
AGO	299.940.763	290.047.140	282.532.787	295.979.186	324.345.397	373.895.703	
SEP	296.009.246	303.678.758	302.529.880	294.090.696	303.406.901	383.726.281	
OCT	338.387.816	320.666.786	312.212.644	319.603.474	308.620.790	392.030.470	
NOV	334.705.061	339.346.440	343.009.469	350.465.948	303.514.451	394.915.993	
DIC	319.542.821	322.993.197	311.942.603	287.819.632	323.975.561	353.339.401	




Grafika 13. 2015 -2021 (apirila) titularren bilakaera modalitatearen arabera Laneko sarrerren gehigarria

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	12.239	12.307	12.522	11.986	11.071	10.429	9.933
OTS	12.213	12.478	12.480	11.760	10.878	10.282	9.972
MAR	12.384	12.485	12.413	11.641	11.094	10.345	9.821
API	12.473	12.596	12.321	11.597	10.874	10.026	9.167
MAI	12.644	12.688	12.512	11.693	10.917	10.117	
EKA	12.830	12.759	12.638	11.687	10.965	10.099	
UZT	12.729	12.582	12.512	11.508	10.857	10.036	
ABU	12.555	12.485	12.242	11.353	10.659	9.811	
IRA	12.494	12.495	12.074	11.182	10.514	9.810	
URR	12.188	12.485	12.006	11.323	10.437	9.891	
AZA	12.224	12.504	12.055	11.121	10.403	9.906	
ABE	12.327	12.570	11.993	11.020	10.418	9.860	



Oinarrizko errenta

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	53.630	52.368	50.795	47.928	43.779	41.914	44.883
OTS	53.859	52.740	50.902	47.446	43.706	41.958	45.694
MAR	53.925	52.785	50.867	47.045	43.789	42.046	45.209
API	53.859	52.910	50.825	46.708	43.333	43.248	44.978
MAI	53.729	52.969	50.412	46.393	42.984	43.949	
EKA	53.451	52.732	50.122	46.230	42.737	43.940	
UZT	53.095	52.599	49.770	45.869	42.527	43.974	
ABU	52.485	51.906	49.072	45.447	42.278	44.139	
IRA	52.390	51.786	48.809	45.249	42.042	44.123	
URR	52.405	51.652	48.587	44.707	41.936	44.185	
AZA	52.411	51.479	48.539	44.484	41.944	44.502	
ABE	52.399	51.227	48.412	44.360	42.037	44.887	





Grafika 14. 2015 -2021 (apirila) hileko nominaren bilakaera modalitateraren arabera
Laneko sarreraren gehigarria

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	6.169.298	5.709.967	5.690.206	5.484.685	5.077.142	5.178.886	4.915.122
OTS	6.192.721	6.057.876	5.643.520	5.374.192	5.029.985	5.152.666	5.156.716
MAR	6.267.267	6.043.041	5.628.780	5.296.193	5.679.924	5.127.373	5.080.198
API	6.307.762	6.377.476	5.955.225	5.260.782	5.163.477	4.990.400	4.647.571
MAI	6.379.968	6.065.388	5.681.886	5.300.846	5.117.363	5.097.309	
EKA	6.464.462	5.994.671	5.772.597	5.303.670	5.115.642	5.119.856	
UZT	6.336.787	5.748.275	5.568.269	5.168.147	5.037.729	5.237.851	
ABU	5.987.664	5.637.915	5.347.419	5.000.160	4.855.073	4.992.507	
IRA	5.910.800	5.670.441	5.341.126	4.981.989	4.766.180	4.897.739	
URR	5.690.815	5.745.858	5.386.912	5.184.780	4.875.991	5.038.644	
AZA	5.751.525	5.799.629	5.410.736	5.045.764	4.839.283	5.013.183	
ABE	5.677.447	5.698.403	5.337.567	4.885.229	4.834.166	4.926.097	

Oinarritzko errenta

Hilabetea	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
URT	27.482.851	27.400.158	26.767.284	25.733.174	23.592.457	24.811.282	24.811.282
OTS	27.908.052	28.591.670	26.596.880	25.662.436	23.593.117	24.788.813	24.788.813
MAR	27.934.726	28.433.667	26.536.550	25.255.550	26.104.044	24.833.192	24.833.192
API	27.858.498	27.965.231	28.041.595	24.998.519	24.474.547	25.690.575	25.690.575
MAI	28.010.409	28.236.674	26.838.347	24.990.730	24.087.057	25.960.745	25.960.745
EKA	27.839.911	27.761.983	26.480.380	24.788.037	23.825.066	26.167.732	26.167.732
UZT	27.468.092	27.448.349	25.978.043	24.427.846	23.652.278	26.189.033	26.189.033
ABU	26.686.833	26.850.295	25.384.656	24.081.561	23.260.972	26.400.902	26.400.902
IRA	26.792.241	26.914.771	25.317.507	24.032.826	23.298.725	26.639.544	26.639.544
URR	27.387.077	27.160.447	25.734.676	24.203.434	23.503.000	26.899.745	26.899.745
AZA	27.218.997	27.257.892	25.746.639	23.839.917	23.403.458	27.138.791	27.138.791
ABE	27.192.022	26.688.981	25.503.836	23.588.432	23.522.872	27.144.406	27.144.406



Legegintzako proposamenen DSBEren zenbatekoa finkatzeko ezartzen diren irizpideak kontuan hartuz eta zenbatekoak eta osagarriak zehazteko mekanismoa aplikatuz:

- Bizikidetza-unitate batek jaso dezakeen gehieneko errenta bermatua honako hauen batura da: errentaren oinarria, bizikidetza-unitateko kide bakoitzagatik jaso daitezkeen osagarriak eta bizikidetza-unitateari berari dagozkion osagarriak.
- Errentaren oinarria zenbateko finkoa da eta etxebizitza batean oinarritzko beharrianak asetzeko egin beharreko gutxieneko gastuari dagokio. Horri unitateko kideen banakako osagarriak eta unitateari dagokion osagarriak gehitzen zaizkio diru-sarrerak bermatzeko gehieneko errenta bermatua kalkulatzeko; gainera, gizarte-larrialdietarako laguntzaren zenbatekoa finkatzeko ere erabiltzen da.
- Legea indarrean jartzean, oinarriaren zenbatekoa bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun batek hilean bermatuta duen errenta da. Halaber, zenbateko hau Estatuko aurrekontu orokorretan finkatutako kotizazio gabeko pentsioen urteko zenbatekoa hamabiz zatitzearen emaitzako kopuruaren % 100 da. Gaur egun (2021eko martxoa) hau da zenbatekoa: 470 euro hilean.
- Banakako osagarriak bizikidetza-unitatearen gastuen banaketaren arabera finkatzen dira, adin nagusikoaren kopurua eta adingabeen kopurua kontuan hartuz. Honako erregela hauen arabera aplikatuko dira:
 - Titularra: oinarriaren % 50.
 - Gainerako onuradun bakoitzeko, adina gorabehera: oinarriaren % 30.
- % 25eko gehikuntza aplikatuko zaio guraso bakarreko unitateen oinarriari, bai eta pentsiodunen bat dagoen unitateen oinarriari, % 45etik gorako desgaitasuna duen pertsonaren bat dagoen unitateen oinarriari eta genero-indarkeriaren biktima den pertsona bat dagoen unitateen oinarriari ere. Gehikuntza horiek metatu ahal izango dira, unitate batean egoera horietako bat baino gehiago gertatuz gero; salbuespena: pentsiodunaren osagarria ez da bateragarria desgaitasunaren osagarriarekin, desgaitasuna duen pertsona bakarra pentsioduna bada.

Mekanismo hauen aplikaziotik abiatuta, ondoko taulan proposatutako legearen aurreproiektuan ezartzen diren zenbatekoak (euroetan), gaur egun jasotzen direnak eta legegintzako proiektu honetan ezartzen direnak ageri dira, guraso bakarra izateagatik eta unitatean pentsioduna egoteagatik ematen diren osagarriak soilik kontuan hartuta.

	Gaur egun	2021eko proposamena
Adin nagusiko pertsona bat bakarrik	706	705
Adin nagusiko bi pertsona	907	846
Adin nagusiko pertsona bat + adingabe bat	958	964
Adin nagusiko bi pertsona + adingabe bat	1.003	987
Adin nagusiko pertsona bat + bi adingabe	1.054	1.105
Adin nagusiko bi pertsona + bi adingabe	1.003	1.128
Adin nagusiko bi pertsona + hiru adingabe	1.003	1.269
Adin nagusiko pertsona bat, pentsioduna	810	893
Adin nagusiko bi pertsona (bat pentsioduna)	1.013	1.034
Adin nagusiko hiru pertsona (bat pentsioduna)	1.094	1.175

Zenbatekoen eta osagarrien inguruko datu hauek kontuan hartuta, hileko nominaren konparazioa egin da: batetik, indarrean dagoena; bestetik, legegintzako proposamenak ekarriko lukeena.

DSBEren hileko nominen ordainketa azaltzen duten taulak egiteko erabili diren kontzeptuak:

- **Espedienteen kopurua**
- **Eguno ordainketa:** $GJH_DSBE_ZENBATEKOA_DSBE$ taulako $DSBE_ZENBATEKOA_ORDAINKETA_DSBE$ ko zenbatekoa
- **Ordainketa berria:** Kalkulu berriaren emaitza zenbatekoa - diru-sarrerak = Kopuru berritik diru-sarrerak kendu behar dira
- Diru-sarrerak kalkulatzeko kenketa hau egin behar da: $ZENBATEKOA_GEHIEN_DSBE - DSBEI_ZENBATEKOA_AITORT_DSBE$
- **2021eko apirilaren 30eko datuak**

DSBEren hileko nominan izango liratekeen ondorio ekonomikoak identifikatzeko erabili den kontzeptua hileko ordainketa da; hori kalkulatzeko, titular bakoitzaren gehieneko diru-sarrera teorikotik beraren espedientearen eguneratzean aplikatutako diru-sarreraren kontzeptuak kentzen dira. Beste alde batetik, hileko ordainketaren kontzeptua da hilero Ogasunera bidaltzen dena hileko ordainketa-aginduak betearazteko; beraz, benetako datua da, bai ondorio ekonomikoetarako, bai komunikazio publikorako.

1. zenbatespena Konparazio **OROKOR AGREGATUA:** DSBEren hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30.



Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
55.030	31.324.423	32.093.925	769.503	2,46

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Legegintzako proposamen berriko zenbatekoak eta osagarriak aplikatuz gero, egungo zenbatekoa % 2,46 gehitzen da: 769.503 euro gehiago hilean eta 9.234.036 euro gehiago urtean.

Jarraian hileko nominan izango diren ondorioak kolektiboen eta aldagarrien arabera aztertzen dira.

2. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: sexua.**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
Gizonezkoa	22.922	13.222.433	12.965.949	-256.484	-1,9
Emakumezkoa	32.108	18.100.635	19.126.877	1.026.241	5,7

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Legegintzako proposamen berriko zenbatekoak eta osagarriak aplikatuz gero, emakumeen egungo hileko nomina % 5,7 gehitzen da eta gizonena % 1,9 murrizten.

3. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: tratu txarrak.**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
Ez	53.476	30.264.830	30.796.125	531.295	1,8
Bai	1.554	1.059.593	1.297.801	238.208	22,5

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Legegintzako proposamen berriko zenbatekoak eta osagarriak aplikatuz gero, espedientearen titularrak tratu txarrak jasan baditu, egungo hileko nomina % 22,5 gehitzen da; tratu txarrik jasan ez baditu, % 1,8 gehitzen da. Eredu berriarekin **babes nahiko handiagoa dute tratu txarrak jasaten dituzten pertsonak.**

4. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: guraso bakarraren osagarria.**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
Ez	45.699	24.855.933	24.627.107	-228.826	-0,9
Bai	9.331	6.468.489	7.466.818	998.329	15,4

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Legegintzako proposamen berriko zenbatekoak eta osagarriak aplikatuz gero, espedientearen titularrak guraso bakarraren osagarria jasotzen badu, egungo hileko nomina % 15,4 gehitzen da;

aldiz, titularrak osagarri hori jasotzen ez badu, nomina % 0,9 murrizten da. Kasu honetan ere, eredu berriarekin **babes nahiko handiagoa dute guraso bakarrek**.

5. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: pentsioduna.**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
Ez	42.160	27.491.154	28.156.193	665.040	2,4
Bai	12.870	3.833.269	3.937.732	104.463	2,7

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Legegintzako proposamen berriko zenbatekoak eta osagarriak aplikatuz gero, espedientearen titularra pentsioduna bada, egungo hileko nomina % 2,7 gehitzen da; pentsioduna ez bada, nomina % 2,4 gehitzen da.

6. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: bizikidetza-unitateak etxebizitza berean**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
Bakarra etxean	37.825	20.828.939	23.600.039	2.771.099	13,3
2 edo gehiago etxean	17.205	10.482.599	8.477.603	-2.004.997	-19,1

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Eredu berriarekin, etxebizitza batean bizikidetza-unitate bat bakarrik egonez gero, hileko nomina % 13,3 gehitzen da; aldiz, etxebizitza berean bizikidetza-unitate bat baino egonez gero, hileko nomina % 19,1 murrizten da. Bizikidetza-unitate bat baino egonez gero hileko nomina murriztea legegintzako proposamenean honelako etxebizitzetarako ezartzen den eskalako ekonomiaren ondorioa da.

7. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: bizikidetza-unitateko kideen kopurua**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
1 kide	32.448	16.146.241	14.978.944	-1.167.297	-7,2
2 kide	10.537	6.486.873	6.772.590	285.718	4,4
3 kide	6.224	4.349.584	4.695.929	346.344	8,0
4 kide	3.260	2.386.737	2.886.911	500.174	21,0
5 kide	1.711	1.295.270	1.733.275	438.006	33,8
6 kide	653	501.823	755.212	253.389	50,5
7 kide	144	111.804	187.422	75.618	67,6
8 kide	45	40.226	70.974	30.748	76,4
9 kide	4	2.860	5.994	3.134	109,6
10 kide	4	3.005	6.674	3.670	122,1

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Zenbatekoen eta osagarrien eredu berriarekin, bizikidetza-unitatea pertsona bakarrekoa izanez gero, hileko nomina % 7,2 murrizten da; aldiz, zenbat eta pertsona gehiago egon bizikidetza-unitatean, DSBEn nomina kopuruaren arabera gehitzen da. Bizikidetza-unitatea pertsona bakarrekoa izanez gero hileko nomina murriztea legegintzako proposamenean bizikidetza-unitateen dimentsioez ezarritakoaren eskalako ekonomiaren ondorioa da.

8. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: desgaitasuna duen pertsona**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
Pertsona desgaitua	4.573	2.094.140	2.132.539	38.398	1,8

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Zenbatekoen eta osagarrien eredu berriarekin, desgaitasuna duen pertsonaren osagarriari esker hileko nomina % 1,8 gehitzen da.

9. zenbatespena Konparazioa: DSBEn hileko nominen ordainketa, kalkulu berrirako aplikatuta 1. onuradunari oinarriaren % 50 dagokiola eta gainerakoei % 30. **Aldagarria: lanaren errentaren osagarriak**

	Expediente Zkia	Gaur egungo ordainketa	Ordainketa berria	Saldoa	Dif%
Lan prekarioa	9.821	4.646.186	4.987.804	341.618	7,4

Iturria: Lanbide. Elaborazioa: kabinete Teknikoa

Zenbatekoen eta osagarrien eredu berriarekin, lanaren errenten osagarriak aplikatuz gero, enplegua lortzeko pizgarri gisa, egungo hileko nomina % 7,4 gehitzen da. Eredu berrian askoz erakargarriagoa da ordaindutako lan-jarduera egitea DSBEn osagarri modura. Hala ere, nominaren partaidetzaren gehikuntzaren arrazoia honako hau da: lanaren errenten osagarriak jasotzen diren bizikidetza-unitateetan kide asko egon ohi dira eta ondorioz unitateko kideen kopuruaren arabera eskalako ekonomiaren aplikazioak mesede egiten die.

Legegintzako proposamen berrian aldaketa batzuk egiten dira eskatzaileen eta beren bizikidetza-unitateen betekizunetan eta betebeharretan. Ondoko puntuetan aldaketa horien ondorio ekonomikoak zenbatetsiko dira.

C.2.1.1. DSBEn Adin-mugak

18 - 23 urte bitartekoek DSBEn jasotzeko salbuespenak aldatzen dira.

Gaur egun 23 urtetik beherako 365 pertsonak jasotzen dute DSBEn. Kopuru hori gehitu egin liteke, arautegi berriak erraztasunak ematen baititu honako hauek DSBEn jasotzeko, 3 urte errolatuta egon beharra betez gero:

- Babes-sisteman dauden adingabeak.
 - EAEn familia-erreferentziarik gabeko 1.000 inguru adingabe bizi dira, bakarrik dauden adingabe atzerritarren 2018ko erregistroaren arabera.

- Adingabeen egoitza-harrerarako bizikidetza-zentroetan dauden beste adingabe batzuek, hain zuzen ere beharrian materialak, afektiboak eta hezkuntzakoak bere familian asetzen ez zaizkienek.
- Gurasoengandik aldendu, 240 egun kotizatuz gero.

Arautegi berriarekin, uste da diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten 23 urtetik beherako titularren kopurua oraingoa halako 1,4 handiagoa izan litekeela. 2021eko apirilean onuradun horiek guztira 300.000 € inguru jasoko litzuketenez gero, eredu berriarekin baliteke hilean 420.000 € baino gehiago ordaintzea, hau da, 5.040.000 € inguru urtean. Proposamen berriaren ondorioz DSBEn urteko nominan 1.440.000 euro gehiago ordainduko lirateke.

Ordainketak, adinaren arabera. Gaur egun eta aurreproiektuko kontzeptuen arabera zenbatespena.

Adina	Titularrak	Egungo ordainketa	Ordainketa berria
18-23 urte	365	298.316	309.248
23 urtetik gora	54.665	31.026.106	30.987.413
Guztira	55.030	31.324.423	31.296.661

C.2.1.2. DSBEn. Eratu aurreko aldia

Lehenengo bestean uzten da betekizuna: gainerako betekizunak betetzeaz gainera, 23 - 29 urte bitartekoek frogatu beharko dute eskaera aurkeztu aurretik urtebete gutxienez beren kabuz bizi izan direla. Honako hauek ez dituzte betekizun hori bete beharko: pertsonen salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak, genero-indarkeriaren edo etxe barruko indarkeriaren biktimak, terrorismoaren biktimak, EAEtik kanpo bizi diren EAEko herritarrak eta erabateko zurtzak. Uste da salbuespen hauen eragina ez dela handia izango. Eraginpeko kolektiborik handiena tratu txarren biktimena da.

Tratu txarren biktimen ordainketan, adinaren arabera. Gaur egun eta aurreproiektuko kontzeptuen arabera zenbatespena.

Adina	Titularrak	Egungo	Ordainketa berria
18-23 urte	34	25.891	31.366
23 - 29 urte	177	132.720	157.476
29 urte eta gehiago	1.343	900.982	1.103.450
Guztira	1.554	1.059.593	1.292.292

Urteko eragina, 23 - 29 urte arteko pertsonak kontuan hartuta, txikia da: 297.072 euro.

C.2.1.3. DSBEn. Eduki ekonomikoko eskubideak (publikoak ez bestelakoak) erabiltzeko betebeharra kentzea

Mantenu-pentsiodun espedienteen urteko batez besteko kopurua 5.641 da. Mantenu-pentsioa 6 hilabetez ez litzatekeenez zenbatuko, hileko nominan izango lukeen eragina honako hau litzateke, lehen urtean espediente potentzial guztiak kontuan hartuz gero: 540.000 euro, batez beste 191 € pertsonako. Espediente guztietan ez da gertatzen bikotekideak mantenu-pentsioa ez ordaintzea, eta horregatik kalkuluak egiteko hipotesi modura hartu da mantenu-pentsiorik ez edukitzea espedienteen heren batean, eta horren arabera DSBEn hileko nominen guztirako zenbatekoa 178.000 euro gehituko litzateke (6 hilabete); lehen urtean guztirakoa 2.136.000 euro izango litzateke.

Hurrengo urteetan eragina espediente berrietan izango litzateke, ez mantenu-pentsiodun espediente guztietan. Erreferentziatzat azken 10 urteak hartuz gero, batez beste urtean mantenu-pentsiodun 1.000 espediente gehiago egongo dira. Kalkulu bera aplikatuz, hurrengo urteetako hileko kostua 31.566 euro izango da eta urte osokoa 378.796 euro.

C.2.1.4. DSB. Errolda

Adingaberen bat dagoen bizikidetza-unitateei Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean erroldaturik eta bizitzen eskatzen zaien denbora murrizten da: orain hiru urte eskatzen dira eta bi eskatzea proposatzen da.

Adingaberen baten ardura duten pertsonen errolda-beharkizun hau malgutzeak Estatutik kanpo jaiotako pertsonen eragingo die batik bat. Neurri honek edukiko duen eragin ekonomikoa kalkulatzeko, azken hamar urteetako erroldatuen urteko batezbestekoa hartu dugu erreferentziatzat. Horren arabera, urtean batez beste 2.751 pertsona egoten dira erroldatuta W motako dokumentuekin. Pertsona horien bi herenek ardurapeko adingaberen bat dute, gutxi gorabehera: 1.800 espediente berri potentzial.

Kontuan edukita Estatutik kanpo jaiotako bizikidetza-unitateetan 2,1 kide izaten direla batez beste, gehienez 865 espediente egongo lirateke. Pentsatu dugu kopuru horren % 60 DSBEn espedienteak izan litezkeela eta horren arabera 519 espediente egongo lirateke aurreproiektuak errolda-beharkizunean proposatzen duen aldaketaren eraginpean. gaur egun espediente bakoitzaren kostua 670 euro denez, kontzeptu honen ondorioz DSBEn hileko nomina 347.730 euro gehituko litzateke; beraz, urte osoan eragin ekonomikoa 4.172.760 euro izango litzateke.

Kalkulu honek lehen urterako baino ez du balio: hurrengoetan eragina herena izango litzateke, errolda-beharkizuna malgutzen den urtea egun eskatzen diren hiru urteen artean hainbanatuko litzatekeelako. Beraz, hurrengo urteetan hileko gehikuntza 115.910 eurokoa izango litzateke. Urte osoan 1.390.920 euro izango litzateke (bigarren urtetik aurrera).

Jaio	Titularrak	Egungo ordainketa	Ordainketa berria
Estatuan	31.587	15.848.906	15.575.860
Estatutik kanpo	23.443	15.475.517	15.720.801
Guztira	55.030	31.324.422	31.296.661

C.2.1.5. DSB. Aldaketak odol-ahaidetasun/ezkontza-ahaidetasunaren graduetan

Arau berriak hauxe ezartzen du: *“Bizikidetza-unitatea osatzen dute bizileku batean bizi diren pertsonak batek edo gehiagok. Bat baino gehiago badira, elkarrekiko lotura izan behar dute odolkidetasuneko eta ezkontza-ahaidetasuneko, adopzio, familia-harrera iraunkorreko edo adopzio aurreko harrerako bigarren gradurainoko harremanaren bidez. Ezkontza-loturaren bidez edo ezkontza-loturaren antzeko baten bidez elkartutakoek ere osatzen dute bizikidetza-unitatea”*.

Lehen, aldiz, bizikidetza-unitatea osatu zitekeen 4. gradura arteko odol-ahaideekin. Aldaketa honen arabera titular bihurtuko dira orain onuradun izan direnak. Aldaketaren ondorioak ondoko taulan zehazten dira:

	Titular berriak	Eragina (€)	Aurrezpena	Azken eragina (€)
EAE, guztira	235	133.767,75	14.865,51	118.902,24

Hori aurrezpenaren zenbatespena da, uste baita onuradun izatea galtzen duten pertsona guztiek ez dutela edukiko prestazioa titular gisa jasotzeko eskubidea.

Metodologia honako hau izan da: kalkulatu da zenbat onuradun dauden 3. graduako edo hortik gorako odol-ahaidetasunarekin edo ezkontza-ahaidetasunarekin; ondoren kopuru hori titular bakoitzaren batez besteko zenbatekoaz biderkatu da; emaitzako kopurutik onuradun horiek titular bihurtzeak ekarriko lukeen aurrezpena kendu da eta horixe da azken eraginaren zenbatespena.

C.2.1.6. DSBE. Bizikidetza-unitatea zehaztea

Aurrekoaz gainera, arauak honako hau ere ezartzen du: *“ezkontzaren antzeko harremana dagoela ulertuko da honako inguruabar hauetatik edozein suertatzen denean:*

- *Azken lau urteetan gutxienez bi urtez elkarrekin bizitzea, etenik gabe edo nahiz etenekin.”*

Zenbatetsi da zenbat etxebizitzan dauden pertsona bakarreko bi bizikidetza-unitate, bata emakumea eta bestea gizona (etxebizitza hauek dituzte aukera gehien bikote baten bizilekutzat hartzeko; beste era batera osatutakoak ez dira kontuan hartu). Guztira honelako 2.582 etxebizitza daude; arautegi berriaren arabera, elkarrekin bi urte bizi izanez gero, bizikidetza-unitate bakarra dagoela ulertuko da.

Kontuan edukita pertsona bakarreko bizikidetza-unitateen batez besteko kostua, diru-sarrerak kenduta, 500 euro dela (1.000 euro etxebizitzako), hileko kostua 2.582.000 euro da eta urtekoa 30.984.000 euro. Aurreproiektuko aldaketaren ondoren unitate horiek erdira etorriko lirateke, etxebizitza berean bizi diren bi pertsonak bizikidetza-unitate batekotzat joko bailirateke; beste alde batetik, pertsona bakarreko unitateak bi pertsonako bihurtzeak bakoitzaren kostua gehituko luke: 642,7 €. Horrenbestez, pertsona hauen nominaren kostua 1.659.564 euro izango litzateke hilean eta 19.914.768 euro urtean. Bizikidetza-unitatea zehazteko formula berriaren bidez 11.069.632 euro aurreztuko lirateke.

C.2.1.7. DSBE. Ezohiko bizikidetza-unitatea

Arauak honako hau ezartzen du ezohiko bizikidetza-unitateez, pentsiodun diren titularrei dagokienez: *“pentsiodunek ezohiko bizikidetzako-unitateak eratu ahal dituzte, nahiz eta bizi diren pertsonak odol-ahaiak izan”.*

Aurreproiektuak muga bat ezartzen du: ezkontideak (edo horrekin parekatuak) eta seme-alabek ezin dute eratu beste bizikidetza-unitate bat (ezohiko bizikidetza-unitatean egon behar dira). Gaur egun, pentsiodun batekin bizi diren pertsonetatik 280 ez dira kategoriatuak; horiek beste bizikidetza-unitate bat eratu ahal izango lukete pentsiodunaren etxebizitzan. Gutxi direnez, eragin txikia izango lukete bai bizikidetza-unitateen kopuruaren gorakadaren ondoriozko kostu-gehikuntzak, bai onuradunen jaitsieraren ondoriozko kostu-murrizketak.

C.2.1.8. DSBE. Enplegurako pizgarriak

Enplegurako pizgarriez eta lanaren errenten osagarriez denaz bezainbatean, 2020ko espedienteak eta 2021eko apirilera artekoak atertu dira.

- Pizgarriak eman diren espedienteak, 36 hilabete (agortuta)4.556
 - **Espediente horietan. Lanaren etekinekin** **2.838**
 - Espediente horietan. Lanaren etekinik gabe1.718
- Lan egiteagatik eta pizgarriak agortzeagatik etendurak izan diren espedienteak 1.912
- Pizgarrien batez besteko kostua300

Enplegurako pizgarriek muga-egunik ez izateak eragina edukiko du gaur egun pizgarriak agortu ondoren lanaren errentaren osagarriak dituzten espediente guztietan. Lehen urtean, pizgarriak agortu ondoren lanaren etekinak dituzten 2.838 espedientetan pizgarriak luzatzeak edukiko lukeen eragina 10.212.000 eurokoa izango litzateke (zenbateko hori gaur egun egindako kalkuluaren emaitza da; legea indarrean jarri arteko aldiaren espediente hauek murriztuko dira eta zenbatekoa gutxiago izango da). Hurrengo urteetan zenbateko hori murriztu egingo litzateke, pertsona batzuk diru-sarrerak bermatzeko sistematik irtengo baitira: batzuen lan-egoera hobetuko da eta beste batzuek lana galduko dute eta oinarritzko errenta jasotzen hasiko dira. Azken hiru urteetako datuen arabera, gorabehera handiak izaten dira. Beste alde batetik,

enplegurako pizgarriei muga-egunik ez ezartzeak joera laua eragin du, kontuan hartuta pizgarrien modalitate honetan sartu direnak eta irten direnak.

Zenbatespen hauek egiteko 2001eko formula hartu da erreferentziazat. Atal hau erregelamenduz garatzen denean, enplegurako pizgarriak aplikatzeko formula berria prestatuko da, besteak beste.

C.2.2. Informazio-sistemetakoa gastuak

DSBE eta BGDS kudeatzeko aplikazioak garatzeko eta mantentzeko lanen eta triaje-tresnaren gastuak 1.250.000 euro urtean izango dira. Zenbateko hori eta beraren partida Lanbideren 2021eko aurrekontuetan ezarri dira. Kopuru horretatik 400.000 euro inguru BGDS kudeatzeko aplikazioen eta triaje-tresnaren gastuak dira.

Gizarte-Zerbitzuen informazio-sistema urtero garatzeko eta mantentzeko zenbatespen ekonomikoak eta DSBerako egindakoak antzekoak dira, zenbatekoari dagokionez.

Ez da balioespen ekonomikorik egiten udal bakoitzak GLLak kudeatzeko dituen aplikazioen mantentze-lanei buruz, ez eta koordinazio- eta digitalizazio-beharrei erantzuten dieten aplikazioei buruz ere. Arrazoa da aldaketa hori dimentsionatzeak konplexutasun handia ekarriko lukeela.

C.2.3. Aldaketa kudeatzeko gastuak

Lanbideko profesionalen berariazko trebakuntzarako eta hobekuntzarako gastuak 221.000 euro urtean izango dira; kopuru horretatik 111.0000 euro Lanbideren 2021eko aurrekontuetan ezarri dira. Herritarrei informazioa emateko kanpainen, erakundeen komunikazioen, publizitatearen eta harreman publikoen gastuak 650.000 euro izango dira. Zenbateko hori eta beraren partida Lanbideren 2021eko aurrekontuetan ezarri dira. Partida honetako zenbatekoaren % 50 inguru DSBE eta BGDS prestazioen inguruko kanpainetarako erabiliko da.

C.2.4. Ikuskatzeko ahala

Arau honen IV. tituluaren ikuskatzeko ahala arautzen da, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren prestazio ekonomikoari eta laguntzei aplikatzen zaizkien kontrolak zehazteko.

Ikuskatzeko ahal hau gauzatzeak edukiko lituzkeen ondorio ekonomikoak honela aztertu dira:

- a. Ikuskaritzako urteko plana egiteak edukiko lituzkeen ondorio ekonomikoak.
- b. Ikuskaritzako baliabideen ondorio ekonomikoak.

a. Ikuskaritzako urteko plana egiteak edukiko lituzkeen ondorio ekonomikoak.

Ikuskaritu beharreko kasuak hautatzeko metodo berria zehaztuko da ohiko teknika "tradizionalak" eta 79. artikuluan ("Adimen artifizialeko sistemen erabilera prestazioen kontrolean") ezartzen diren beste batzuk aplikatuz. Datu-meatzaritzan eta iruzurraren identifikazioan bildutako esperientzia baliatuta bai eta algoritmoen bidez urteko ikuskaritza-plana antolatzeke beste baliabide batzuk ere, Lanbidek berariazko tresna bat sortuko du ikuskapenak egiteko. Zenbatespenen arabera, garapeneko kostuak, mantentze-kostuak eta profesionalen zerbitzuenak 620.000 euro izango dira guztira (partida horretatik 120.000 euro inguru aholkularitza-zerbitzuetan gastatuko dira eta 500.000 euro kudeaketa hobetzen). Zenbateko hori eta beraren partida Lanbideren 2021eko aurrekontuetan ezarri dira.

Urtero ikuskaritzako urteko plana antolatuko da algoritmoa aplikatuz. Ondorio ekonomikoak zenbateko, bi kasu proposatzen dira:

1. 1.500 ikuskapen (espedienteen % 2,7)

2. 2.000 ikuskapen (espedienteen % 3,6)

b. Ikuskaritzako giza baliabideen gainera ondorio ekonomikoak.

86. eta 87. artikuluetan zehazten diren ikuskaritzako egitekoak eta ahalmenak kontuan edukita, ikuskapen bakoitzaren batez besteko iraupena 24 ordu izango da (3 egun). Urtean 200 lanegun egonik, ikuskatzaile bakoitzak 70 ikuskapen egingo lituzke urtean.

Lehenengo kasuan, 21 ikuskatzaile egongo lirateke, eta bigarrenean 28.

Lanpostuaren ezaugarriak eta Eusko Jaurlaritzaren edo Lanbideren LPZn edukiko lukeen kategoria alde batera utzita, uste da ikuskatzaile bakoitzaren soldata-kostu gordina 60.000 euro izango litzatekeela.

Ikuskatzaile bakoitzaren kostuaren zenbatespen horren arabera, lege berriak berekin ekarriko lituzkeen langile-gastuen urteko guztirako zenbatekoa 1.260.000 euro litzateke lehenengo kasuan eta 1.680.000 euro bigarrenean.

Gastuen arlokoa izanik ere, zenbatespen honek badu eragina diru-sarreretan ere, iruzurretan harrapatzen direnek dirua itzuli beharko baitute; horrez gainera, ikuskaritza-lan honi esker herritarrek baliabide publikoak eskuzabaltasunarekin erabiltzean oinarritzen den kohesio-sistema honetan duen konfiantza handituko da.

GLLetarako ikuskapen espezifikoa ahalmenari dagokionez, ez da neurri ekonomikorik aurkeztu. Arrazoiak da 251 udalerrietarako agertokiak egiteak konplexutasun handia dakarrela (ikuskapen kopurua zein giza baliabideei dagokienez). Dimentsionamendu hori urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-Plana zehaztearen eta adostearen mende geratzen da

C.2.5. Tokiko erakunde publikoek egiten dituzten gizarteratzeko jarduketaren gastuak

Aurreproiektuaren hirugarren kapituluaren ("Gizarteratzeko programa integratu eta pertsonala") Lanbideak eta beste erakunde batzuek (batez ere tokiko erakundeek) gizarteratzeko egingo dituzten jarduketak arautzen dira.

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal sistemaren titularrek eta onuradunek gizartegintzako programak erabili ahal izango dituzte. Programa hauke erakunde horietako langile espezializatuek zehaztu eta kudeatuko dituzte.

Aurreproiektuko legea indarrean jartzeak edukiko dituen ondorio ekonomikoetako bat izango da pertsona gehiagori emango zaiela arreta gizarteratzeko zerbitzuetan eta horren ondorioz tokiko erakundeek langile espezializatu gehiago beharko dituztela horretan jarduteko.

C.2.6. Gizarteratzearen arloko ebaluazio, ikerketa eta berrikuntza organoa

Legearen aurreproiektuaren bigarren kapituluaren 137 - 141 bitarteko artikuluetan ebaluazio organoa nolakoa izango den zehazten da. Ikuspegi ekonomikotik, organo honek honako gastu hauek izango ditu:

- Langileen gastuak (urtean)
 - Organoaren arduraduna: 70.000 euro
 - Egitura: 135.000 (hiru pertsona; bi teknikari eta administrari bat)
- Profesionalen zerbitzuak (urtean): 200.000 euro
- Auditoretza aurreratua (urtean): 400.000 euro. Zenbateko hori eta beraren partida Lanbideren 2021eko aurrekontuetan ezarri dira.

C.2.7. Bidegabeko ordainketen buruzko kontsiderazioa

Legearen aurreproiektuaren artikuluen arabera, arautzen dituen prestazioen kudeaketan izango dituen ondorioak aintzat edukita, pentsatzekoa da bidegabeko ordainketak nahiko murriztuko direla. 2020. urtean mota honetako gastuen zenbatekoa 37.583.842 euro izan zen.

Aurreproiektuak bi eratara lagunduko du zenbateko hori murrizten. Batetik, denbora gutxiago emango da bidegabe jasotako dirua berreskuratzen eta langile gutxiago beharko dira horretarako; bestetik, bidegabeko ordainketen jaitsierak eragina edukiko du huts egiten dutenen kopuruan.

C.2.8. GLL. Gizarte-larrialdietarako laguntzen urteko ordainketa

Kontuan izanda GLLak diru-laguntzak direla (eta horien aurrekontua urtero zehazten dela urteko Aurrekontuen Legean), ez da gastu-proiektzio egin legegintzako proposamen berriarekin. Alde horretatik, ez da gastuaren gutxi gorabeherako ikuspegi hartu alderaketa gisa (DSBEn egin den bezala). Hala ere, zehaztu daiteke proposamen berriak GLLen urteko gastuari eustea ahalbidetzen duela.

Bizikidetza-unitatei (BU) eta onuradunei dagokienez, lege-proposamen berriak DSBerekin egiten dituen aldaketa komunek duten eragina eta DSBE prestaziorako arestian azertu den eragina oso antzekoak dira. Onuradunak erakartzean, eta kontuan hartuta prozesu osagarriak direla, DSBEari buruz egindako ohar guztiak GLLetan ere proiektatu daitezke. Hau da, DSBEan sar daitezkeen onuradun profil berriek edo diru-sarrera bermatuaren zenbatekoa handitu dezaketen onuradunek ekar dezakete herritar horiek GLLetatik irtetea edo eskaera arintzea.


Eta, alderantziz, DSBEtik kanpo gera daitezkeen profilek edo DSBEn zenbatekoa murrizten ikusten duten onuradunek agian maizago baliatu beharko dituzte GLLak. Ildo horretan, nabarmentzen da eteteak artikulatzeko modu berriak GLLetan nolabaiteko karga ekonomikoa aska lezakeela. Zeren eta DSBEak ordainketaren zati bat mantentzen baitu — ezarritako kasuistiktetarako, batez ere adingabeekin —.

GLLetarako berariaz sartutako aldaketei dagokienez, aldaketa horietako bakar batek ere ez du inolako eragin ekonomikorik ez gastua igotzean, ez eta jaistean ere ez. Izan ere, batez ere, zenbait bateragarritasun aitortzen dira; eta laguntzaren xede diren zenbait kontzeptu zehazten eta txertatzen dira (baina unekoak direnak).

GLLak testuinguruan kokatze aldera, informazio hau txertatzen da: bai onuradunen bilakaera; bai eta GLLen kontzeptu nagusietarako gastuen eta laguntzen bilakaera ere.


Grafiko GLL.1. 2015-2020 pertsona kopuruaren bilakaera urteka

URTEA	2015	2016	2017	2018	2019	2020
BU	30.935	28.882	29.554	29.035	28.467	33.304
Onuradunak	55.144	55.982	56.198	58.253	59.502	63.276




Grafiko GLL.2. 2015-2020 urteko zenbatekoaren bilakaera

URTEA	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Alokairua	7.933.266	11.665.663	9.236.004	9.236.649	9.811.970	14.845.500
Kredituen amortizazioen interesak	2.200.374	2.190.350	5.762.184	4.776.173	5.687.804	5.668.729
Beste mantentze kostuak	10.593.133	12.045.913	7.129.985	6.144.048	7.586.065	9.089.672
Altzariak eta etxetresna elektronikoak	688.163	471.959	554.388	533.176	546.130	392.496
Konponketak eta instalazioak	683.143	598.639	638.643	760.374	775.312	397.849
Lehen mailako beharrak	4.465.148	4.136.455	4.160.911	4.122.723	3.829.387	4.846.407
Zorpetzeak	1.263.896	2.242.027	662.028	1.522.363	641.365	5.153.238
Energia			5.894.367	7.194.572	5.174.735	5.744.693
GUZTIRA	27.827.124	33.351.006	34.038.511	34.290.078	34.052.769	46.138.585

**Grafiko GLL.3. 2015-2020 laguntzaren batez besteko zenbatekoa urteka**

URTEA	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Alokairua	1.095	1.377	1.100	1.217	1.243	1.204
Kredituen amortizazioen interesak	1.015	1.594	1.345	1.471	1.607	1.489
Beste mantentze kostuak	575	618	405	353	413	445
Altzariak eta etxetresna elektronikoak	403	303	327	335	335	400
Konponketak eta instalazioak	553	505	517	537	509	584
Lehen mailako beharrak	477	452	446	459	440	485
Zorpetzeak	1.060	868	565	858	656	1.143
Energia			376	406	351	355
GUZTIRA	673	761	573	574	594	669





C.2.8.1. GLL. EPO indargabetzea eta alokairua

EPO indargabetzeak aldaketarik ekar lezake alokairuko GLLen eskarian. Izan ere, prestazio horren ordez, Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa (aurrerantzean, EPE) jasoko da. Eta, printzipioz, bi prestazio horiek eskuratzeko baldintzak desberdinak dira. EPEa garatzeko Dekretua oraindik aurkeztutzeke dago. Ondorioz, gaur egun, eta gastuaren ehunekoari dagokionez, ezin da baloratu GLLetan eskatuko den edo ase ahalko den alokairu-beharra.

2020an, alokairuko GLLak % 32,2 izan ziren, guztizko zenbatekoarekiko; eta laguntzen % 17. Hala ere, EPOren eta EPEren artean egon litezkeen aldeek eskaera handiagoa eragin lezakete kontzeptu horretan. Eragin hori aztertu egin beharko da EPEren dekretu hori ezagutu eta gero.

Grafiko GLL.4. 2015-2020 laguntzen bilakaera urteka

URTEA	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Alokairua	7.245	8.469	8.397	7.589	7.895	12.328
Kredituen amortizazioen interesak	2.168	1.374	4.285	3.247	3.540	3.807
Beste mantentze kostuak	18.439	19.488	17.591	17.418	18.356	20.442
Altzariak eta etxetresna elektronikoak	1.708	1.556	1.693	1.590	1.631	981
Konponketak eta instalazioak	1.236	1.186	1.235	1.416	1.522	681
Lehen mailako beharrak	9.360	9.157	9.319	8.975	8.694	10.000
Zorpetzeak	1.193	2.583	1.172	1.774	977	4.508
Energia			15.673	17.712	14.726	16.180
GUZTIRA	41.348	43.813	59.365	59.719	57.341	68.928



C.2.8.2. GLL Kreditua banatzea

Legea garatzeko dekretuan ezarritakoaren arabera, urteko agindu batek ezarriko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan gizarte-larrialdietarako laguntzak ordaintzeko izendatutako kredituak lurralde historikoen eta udalerrien arabera banatzeko irizpideak. Irizpide horiek, batez ere, beharrian-adierazleei erantzungo diete.

C.3. Gizarteratzeko errenten eragina eta itzulkin ekonomikoa.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren Legearen proposamen berriak EAEn indarrean dagoen gizarte-kohesiorako eredia sendotzen du. Nolako ondorio ekonomikoak sortuko dituen aztertzean ez dira hartu behar kontuan kudeaketa-lanen eta zenbatekoen ordainketen ondorioak soilik.

Gizarteratzeko errentak tresna eraginkorrak dira pobrezia eta desberdintasunak murrizteko; horrez gainera, eskari agregatua sustatzen dute eta horrek jarduera ekonomikoa bultzatzen du eta enplegua sortzen du. Prestazio hauek eragiten duten jarduera ekonomikoaren ondorioz diru gehiago biltzen da zergen bidez eta horregatik prestazioen benetako kostua hemen azaldutakoa baino nahiko txikiagoa da. EAEko mota honetako prestazioei buruz egin diren azterlanen arabera, (Gizarteratze-errenten inpaktua eta itzulera ekonomikoa. SIIS. 2021eko apirila) beren benetako kostua aurrekontuetan ezartzen dena baino % 16-17 inguru gutxiago izango da. Nolanahi ere, aipatu behar da bilduko litzatekeen diru gehigarriaren % 60 baino gehiago zeharkako zergen bidez bilduko litzatekeela (BEZ, zerga bereziak eta abar).

D) PROPOSATUTAKO XEDAPENA JASOKO DUEN AURREKONTU-PROGRAMA EKONOMIKOA DESKRIBATZEA, IDENTIFIKATUTA ZER HELBURU, EKINTZA ETA ADIERAZLERI ERAGINGO DIEN XEDAPENAK INDARREAN JARRITAKOAN, ETA ZER-NOLAKO ERAGINA IZANGO DUEN EKONOMIAN ETA GIZARTEAN HURA APLIKATZEA.

Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen kudeaketa urtero programatzen da. Prestazioak finantzatzeko baliabide ekonomikoak:

- Gizarteratzeko 3121 programa, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko politika gauzatzeko, hain zuzen ere Lanbideren 41.3121.06.453.02 partida, gizarteratzeko programa funtzionalerako.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzen programa, hain zuzen ere Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 10.3123.21.42201 partida, gizarte-zerbitzuen programa funtzionalerako. 1229 programari dagokiona—COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak programakoa

Lanbiden, programaren helburu nagusiak zuzenbideko prestazio ekonomikoak azkar izapidetzea eta ebatzea eta baliabidea eraginkortasunarekin erabiltzea dira. Programaren burutzapenaren gradua honako ezaugarri hauen arabera egiaztatzen da:

1. Arreta eta informazioa emateko sistema irisgarria eta gorabehera gabea garatzea.
2. Jasotzen diren eskaerak arautegian ezarritako epealdietan eta bertako beharkizunak beteta izapidetzea.
3. Prestazioen onuradunei lan-aktibazioko politikez baliatzeko aukera ematea, haiek jasotzeak desmobilizazioa ez eragiteko.
4. Beharkizunak betetzen direnez kontrolatzea eta azkar detektatzea barruko eta kanpoko kontroletan gertatzen diren aldaketak.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzan zehazten da GLLe onuradun hauek dituztela xede: gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoak, aurre egiteko nahikoa baliabide ez duten pertsonak (gastuak ohikoak zein ezohikoak izan daitezke). Egoera horiei erantzuteko modua egiaztatzeke, pertsona onuradunen kopuruaren jarraipena egiten da.



E) PROGRAMEN NAHIZ LORTU NAHI DIREN HELBURUEN GAUZATZE- ETA BETETZE-MAILAREN EBALUAZIOA, DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMAK GARATZEKO EMANDAKO ARAUAK DIRENEAN, BAI ETA DIRULAGUNTZEN DEIALDIEN EBALUAZIOA ERE, DEIALDI HORIEK AURREKO EKITALDIETAN ONARTUTAKOEN JARRAIPENA DIRENEAN.

Onartu nahi den arau-xedapenak ez du garatzen diruz lagundutako programarik, gizarte-larrialdietarako laguntzen atalean izan ezik.

Honetaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen (1/1997 Legegintza Dekretua) 49. artikuluko 8. apartatuak honako hau ezartzen du:

“8.- Dagokion ekitaldi ekonomikoa amaitzean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta beren erakunde autonomoek gauzatu diren dirulaguntza-programak ebaluatu beharko dituzte; helburua da aztertzea lortutako emaitzak, erabilgarritasuna eta inpaktu soziala eta programa horiek mantentzearen edo kentzearen bidez kotasuna. Ebaluazio hori kontrol ekonomikoaren arloan eskumena duen sailari jakinaraziko zaio.”

Horrekin lotuta, 9. apartatuan zehazten da Jaurlaritzak dirulaguntzei buruzko programen ebaluazioa Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeari igortzeko betebeharra duela.

Era berean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 8. artikuluko ondokoa zehazten du oinarritzko legeria gisa. Administrazio publikoetako organoek nahitaez egin behar dute Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat. Eta Plan horretan honakoak zehaztuko dira: bata, plan hori aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak; bi, plana lortzeko behar den epea; hiru, aurreikusten diren kostuak; eta, azkenik, finantzaketa-iturriak. Nolanahi ere, plana betetzea aurrekontu-egonkortasunaren mende egongo da.

Halaber, aurreikusten da Deialdia Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan sartzea; behin dagokion ekitaldiko aurrekontuak onartu ondoren. Plana Berdintasuneko, Justiziako eta Gizarte politiketako sailburuaren agindu bidez onartuko da. Agindu horren eranskinean— hain zuzen Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagozkion fitxetan— jaso egingo dira bertan aurreikusitako diru-laguntzen lerroei buruz eskatzen diren xehetasun guztiak.

F) ERANSKINA. PROPOSATZEN DEN ARAUAREN ILDO NAGUSIAK ETA OINARRI JURIDIKOAK EZAGUTZEKO EGOKI DIREN TXOSTEN ETA AZTERLANEN DOKUMENTAZIO-ERREFERENTZIAK

Gizarteratze-errenten inpaktua eta itzulkin ekonomikoa. 2021eko apirila. Dokumentazio eta lerketa Zentroa. (SIIS)

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 17a

Alfonso Gurpegui Ruiz

Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordea